

EUSKAL ESKOLA INKLUSIBOA GARATZEKO EKINTZA PLANA

**IKASKUNTZA ETA PARTE-HARTZEARI
OZTOPOAK EZABATUZ**

KONTSULTA DOKUMENTUA

2009ko apirilak 27

EGILEAK:

Carmen Charo Nograro González de Alaiza

Isabel Galende Llamas

M. Aranzazu Etxebarria Olea

LAGUNTZAILEAK:

Maria Belen Odriozola Albizu

Juan Antonio Tejero Maeso

José Santos Bañares

IRAKURKETA KRITIKOA:

Lourdes Iriarte Olarra

Jose Manuel Palacios Navarro

AHOLKULARI SENIORRA:

Rafael Mendia Gallardo

AURKIBIDEA

0.- AURKEZPENA

1.- SARRERA

2.- HEZKUNTZA LEGEDIA ETA ESKOLA INKLUSIBOA

3.- EUSKAL ESKOLA INKLUSIBORAKO EREDU BAT

Euskal Eskola Inklusiboaren Eginkizuna

Euskal Eskola Inklusiboaren Ikuspegia

Eskola inklusiboaren oinarri eta ezaugarriak

Eskola inklusiboaren lehentasunak

**4.- EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN ERRONKAK
INKLUSIOAREN IKUSPUNTUTIK**

*Euskal hezkuntza-sistemaren indargune eta ahuleziak ikuspuntu
inklusibotik begiratuta*

Aukerak eta mehatxuak eskola inklusiboarentzat

Erronkak

5.- EUSKAL ESKOLA INKLUSIBOA GARATZEKO EKINTZA PLANA

Ekintza-planaren helburuak

6.- PLANAREN EBALUAZIOA

7.- BIBLIOGRAFIA

KOI

AURKEZPENA

Euskal Eskola Inklusiboa garatzeko, erabakiak hartzeko prozesuaren maila guztietan, eskolan martxan jartzen diren ekimen pedagogiko guztietan, kulturak, politikak eta praktikak sustatu behar dira. Horretarako, beharrezkoa da zenbait ekintza martxan jartzea. Batzuk garrantzi handikoak izango dira, beste batzuk, ordea, tamaina txikiagokoak, baina guztiak ikuspuntu inklusibo batetik hezkuntza-sistema berpiztera zuzenduak behar dute.

Hortik dator txosten honen "EUSKAL ESKOLA INKLUSIBOA GARATZEKO EKINTZA PLANA" izenburua.

1982an martxan jarri zen Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamua¹ berrikusi eta eguneratzeari ekin zitzaionean, baliteke pertsona batzuentzat arraroa izatea berrikuspen horren azken emaitza hezkuntza-sistema bere osotasunean aztertzen duen txostena izatea. Txostenean jasotzen den proposamenaren helburua, eskolan eta gizartearen hezkuntza-bikaintasuna helburu dutenaren aitzakian eta bizitzan zailtasun bereziak dituzten pertsonak alde batera utziz, ikaskuntzari eta parte-hartzeari sortzen zaizkion oztopoak baliogabetzea da.

Esan behar da zailtasun bereziak dituzten pertsona eta kolektiboaren artean ere, "onenak" aurki ditzakegula. Guztiok dugu bikaintasun-puntua eta gure garapen pertsonalean pausoak emateko aukera izan beharko genuke, geure buruak eskubide eta erantzukizun osoa duten herritar gisa ulertuz.

Hezkuntza Berezirako Egitamu hura arretaz irakurri dutenek, txostenaren adierazpen eta ikuspegi orokorrean, eskolan aldaketa sustatu nahi zela antzemango dute, funtsean, ikasle guztiak barne hartuko lituzkeen aldaketa, tratamendu hobea eta espezializatuagoa erraztu asmoz, ohiko ikasleekin alderatuta tratu bereizia helburu zuten ikuspegi kliniko eta espezializatuak gaindituz. Emaizta, sistema paralelo bat sortzea besterik ez zen, sistema orokorrarekin loturarik gabea, minusbaliotasuna edo arazo eta zailtasun handiko pertsona-edo eskola-istorioa zuten ikasleak gainerako ikasleengandik bereizten zituen distantzia areagotuz.

Lehen plan hura begi kritikoz irakurtzerakoan, honako adierazpenak aurkitu ditugu:

"Horrek guztiak beste planteamendu batera garamatza: gakoa ez da hainbeste ea haurrak eskolan integratu ahal izango duen, haur-multzo zehatz baten beharrei erantzuteko eskola bera nola aldatu behar den baizik"

...

"Printzipio horretan (gizarteratzean) sinesteak, gizabanakoen eta taldeen arteko desberdintasunetan sinestea eta desberdintasun horiek osotasuna aberasten dutela, eta beraz, talde heterogeneoek garatzeko homogeneoek baino aukera gehiago eta hobeak dituztela sinestea. Zentzu horretan, gizarteratzea sustatzen denean, ez da gizabanako baten portaerak ezaugarri homogeneoko kolektibo zehatz batekiko desberdinak izan daitezkeelako aldatzea sustatzen, norbanakoen ezaugarriekiko eta gizabanakoak talde-dinamikan parte-hartze aktiboa izatearekiko errespetua defendatzea baizik, hori zatiak batzearen emaitzarekiko zerbait berria baita. Ez gara haurra aurrez osatua dagoen talde batean integratzeari buruz ari, baizik eta gizabanakoaren ezaugarriak, aukerak, garapen kognitibo eta afektiboak, etab. errespetatuz gizarteratzea sustatzen ari gara, gure taldean helburu nagusia hezkuntza dela kontutan hartuz.

Hona arte, gizarteratzearen filosofia, gizartea osatzen duten talde edo gizabanako guztiei eta bakoitzari egin diezaioke erreferentzia eta guztiak eta bakoitza jaso ditzake. "Baztertu"

¹ Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamua. Hezkuntza eta Kultura Saila. Eusko Jaurilaritza. Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1983

deituriko talde guztientzat balio dezake, baina baztertua ez den gizartearentzat ere balio dezake gizarte alienatzaile den heinean.”

Ez da lehen aldia duela hogeita bost urte baino gehiago diseinatu zen Plan hartan jasotzen zen ideia nagusiaren garapena aztertzen dela. 1987an, Egitamu edo Planaren lehen berrazterketa egin zuen batzordea sortu zen. Batzordearen emaitza eta gomendioak “Eskola Muinbakar eta Integratzailea” Txostenean jasotzen dira². Jada ez da Hezkuntza Berezirako Egitamuaz hitz egiten, herrialdeko neska-mutil guztiak bilduko dituen eskola eraikitzeaz baizik, hainbat baldintzagatik bereizketarik egingo ez duena eta ikasle guztiak eskolan integratu eta gizarteratzeko asmoa duena.

Ildo horretan, Euskal Eskola Publikoari buruzko, otsailaren 19ko, 1/1993 LEGEAK, euskal eskola publikoa, anitza, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura, gizarte eta kulturaren ikuspegitik bere inguruan sustraitua, desberdintasunen konpentsatzaile eta aniztasunaren integratzaile gisa definitzen du.

Eskolaren aldaketa-hazi hura denboran zehar garatuz joan zen, Euskal Eskola Inklusiboaren ideiarekin ingurura iritsi arte. Horixe izan zen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatu eta Donostian, 2003an, ospatu zen “Guztientzako eskola” Kongresuaren gai nagusia³.

Kongresuaren ondorioak ildo horretan doaz eta dokumentu hau egin duen Batzordearen lana argitu dute atze-oihal gisa.

Bide luze honetan, zientzia-, pedagogia- eta gizarte-pentsamenduak ikuspuntua, arretagunea aldatu du, artatzen duen instituzioan eta funtzio hori nola betetzen duen aztertzen baitu, gizabanakoaren gabeziak baino gehiago, nahiz eta ez dituen eskolara doazen pertsona eta gizarte-kolektiboaren berezitasunak ahazten.

Hala ere, eskola-instituzioa begiratze hutsarekin, aniztasunari erantzun asmoz, “berariazko” programa “bereziak” sustatzen dituela kontura gaitezke. Programa horiek, sistema ez bada gogoeta egiteko geratzen, talde desberdinak infinitura biderka ditzake, osagai bereizle indartsu batekin, “hezkuntza-bazterketa” sortzen duten prozesuak zalantzan jarri edo kontrolatu gabe eta “anitzak” deitutako kolektiboak begirako hezkuntza-politikak sakontasunez berriz pentsatzeko aukerari heldu gabe.

Egia esan, pertsona askok eskolan eta komunitatean aurkitzen dituzten ikaskuntza eta parte-hartzearentzako oztopoak eraikitzea edo baliogabetzea pentsatu beharko litzateke, bai eta aukera eta emaitzen berdintasuna galarazten duten prozesuak ere, hori guztia sistemak era teoriko edo idealean sustatzen duen aniztasunarekiko errespetuaren aurkakoa.

Gure Ekintza Planak prozesua jarraitu “*Hezkuntza inklusiboa Ebaluatzeko eta Hobetzeko Gida. Hezkuntza-zentroetan ikaskuntza eta parte-hartzea garatuz*”⁴ gidako ideia nagusiak ditu oinarri. Gida horren egileak Tony Booth eta Mel Ainscow dira eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak moldatu eta argitaratu zuen.

² Eskola Muinbakar eta Integratzailea. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1989

³ Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (2006): “Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan” eta “Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan”. Hainbat jardunbide egokiren esperientziak eta eztabaidak”. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2005-2006.

⁴ Tony Booth eta Mel Ainscow. Hezkuntza Inklusiboa ebaluatzeko eta hobetzeko gida. Eskoletako ikaskuntza eta partaidetza garatuz. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz. 2005.

Txostena UNESCOk mundu mailan sustatutako Hezkuntza inklusiboaren korrontearen barruan kokatzen da. Munduko komunitateak 2015 jarri du guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa eskaintzeko konpromisoa betetzeko epe gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzen duen, urriaren 16ko, 175/2007 DEKREUaren 3. Artikuluak, oinarrizko hezkuntzaren helburuei buruz hitz egiten du eta honakoa dio: *“Eskola inklusiboaren aldeko planteamendua egiten da, eta haren oinarritzat jotzen dira ekitatea, elkartasuna eta aukeraberdintasuna; ildo horretatik, hauek lehenetsiko ditu Oinarrizko Hezkuntzak: ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratzea; ikasleen aniztasunari arreta ematea; gertatu bezain laster hautematea eta tratatzea ikasteko zailtasunak; ikasleei tutoretzak eta hezkuntza-orientazioa ematea, eta familiekiko harremana zaintzea. Horren guztiaren helburua hezkuntza-ingurune egokia eraikitzea eta ikasteko oztopoak ezabatzea da.”*

Gogoeta horiek oinarri hartuta, hemen aurkezten dugun EKINTZA PLANAK, hezkuntza-sistemaren eta gizartearen barruan pertsona-kopuru garrantzitsu batek ikaskuntzarako eta parte-hartzeko sentitzen dituen oztopoen ondorioak murrizteko, hezkuntza inklusiboaren ikuspuntutik euskal hezkuntza-sistemak mahai gainean dituen hamar erronkak jaso ditu. Ez dira ekintza-oinarriak soilik jasotzen, ikasle guztien eskola-arrakasta erraztuko duen kalitatezko eskola inklusiborantz euskal eskolak hartu duen bidea azkartzea xede duten helburu eta ekintzak adierazten baitira.

1.- SARRERA

1982tik, gure Autonomia Erkidegoan berariazko laguntza-premiak dituzten ikasleentzat hezkuntza-erantzuna eskaintzera zuzenduriko hainbat programa garatu dira.

Urte horretan, *Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamua*⁵ argitaratu zen. Euskadiko Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Bereziko irakaskuntzak arautzen dituen Hezkuntza Sailaren, 1982ko irailaren 2ko, Agindua izan zen Hezkuntza Bereziko Egitamua proposatutako aldaketen abiapuntua.

Gizarte-bazterketa pairatzeko arriskua duten ikasleei eman beharreko erantzunaren ingurukoa, berriz, 1984an, «Osabidezko Hezkuntza»⁶ terminoa gure Erkidego Autonomoan hezkuntza-kulturari gehitu zitzaionean. Hamarkada horretan zehar, ezarpen- eta arrakasta-maila desberdinekin, hainbat ekimen jarri ziren martxan honako programen inguruan: Gizarte-zailtasunak dituzten Gazteentzako Osabidezko Hezkuntza Programak.

Osabidezko Hezkuntzaren ildo berean baina lan-munduan txertatzea lortzeko helburu zehatzarekin sortu ziren Lanbide Hastapenerako Programak, Europako Gizarte Funtzaren lankidetzarekin, EBko trantsizio-programekin (proiektu pilotuak) zuten loturan parte hartuz.

Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamuaren berrazterketa gisa, bigarren aldi bat identifika daiteke. Aldi horretan, Hezkuntza Bereziko Batzordearen txostena argitaratu zen: Eskola Muinbakar eta Integratzailea.⁷

Eskola muinbakar eta ikasle guztien integratzailearen filosofia hezkuntza-erantzunaren normalizazio, sektorizazio eta indibidualizazioaren printzipioetan dago oinarrituta. Hezkuntza-markoan printzipio horietan oinarrituta, HPBak dituzten ikasleei beharrezko laguntzak eta zerbitzuak, curriculum egokituak eta murriztailea ez den ingurunean eskolatzea eskaintzen zaizkie. Ikuspuntu horrek hainbat aldaketa kualitatibo garrantzitsu ekarri zituen; hala nola, eredu medikalizatutik hezkuntza-eredurako pausoa minusbaliotasuna hezkuntza-premia bereziko terminoetan definitzerakoan, nahiz eta garrantzi eta iraunkortasun terminoetan desberdintasuna antzematen jarraitzen den, edo Hezkuntza Berezi bereziaren eredutik hezkuntza-sistema arruntera eta subjektuaren erritmo eta beharrei moldatzeko curriculumean egokitzapenak sustatzera pasa izan.

Txosten horretan, Osabidezko Hezkuntzaren Programak hasteko zeuden arrazoiekin bat eginez, besteak beste, Egokitzapen Sozialaren garapen-programa garatu zen. Programa, ikasleengan arazoak, hala nola, jokabide- edo gizarteratze-zailtasunak, eskolara ez agertzea, eskola gabetzea, etab. sortzea sustatzen duten bazterketa, soziokulturalki lur jota dauden eremu edo desegituratutako familia-eremuei lotutako egoera zehatzei ekiteko ahalegina zen.

⁵ Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamua. Hezkuntza eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz. 1983.

⁶ Mendiá, R (1996) Educación Compensatoria para adolescentes en dificultad social en el País Vasco. Revista Educación Social. 2. zb. Urtarrila/Apirila 33-46 or.

⁷ Hezkuntza Bereziko Batzordearen Txostena. Vitoria-Gasteiz. 1988. "Eskola Muinbakar eta Integratzailea". Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz. 1989.

Ikuspuntu muinbakarra, lehen aipatutako Txostenaren emaitza, “Hezkuntza Premia Bereziei buruzko EAEko Araudia” garatzerakoan zehaztu zen.⁸

Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamua martxan jarri zenetik 20 urte bete zirela oroituz, 2003an, “GUZTIENTZAKO ESKOLA: hezkuntza premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan”⁹ Kongresua egin zen eta gure herrian hezkuntza-pentsamendu eta -praktikarako bultzada handia izan zen. Bertan, hezkuntzaren ikuspuntu inklusiboak garrantzi handia izan zuen, “Eskola muinbakar eta integratzailea” delakoa eratzeke eta praktikan jartzeko pausua emanez.

Aipatu Kongresuaren Ondorioetan, Euskal Hezkuntza Administrazioari duela hogeitau urte hasitako bidean esfortzuak egiten jarraitzea eskatzen zitzaion, ezinbestekoak diren babes eta laguntza emanez, neska-mutiko guztiek ikasi eta parte hartzen jarraituko duten eskola eraikitzen jarraitzeko.

Denboran gertuago, urriaren 16ko 175/2007 DEKRETUAK¹⁰, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezarri zuenak, sarreran, aniztasunaren trataera, planteamendu inklusibo batetik abiatuta, hezkuntzaren kalitatea balioesteko irizpide giltzarrietako bat dela nabarmentzen du, euskal hezkuntza-sistemaren ardatza inklusiboa dela azpimarratuz.

Dekretu horrek, Oinarrizko Hezkuntzako eredu bat ezartzen du, pertsonen gaitasunak osorik garatzeko printzipio orokorrak aintzat hartuta, eta kontuan izanda zer oinarrizko gaitasun izan behar dituzten pertsonak, norberaren errealizazioa eta garapena lortzeko, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta enplegua lortzeko.

EAEko hezkuntza-sistema lanean ari da azken hogeita bost urteotan, ikasleek ikasteko izan ditzaketen trabak eta oztopoak ezabatzen, eta xedetzat du ikasle guztiek garapen pertsonal, sozial, eta, behar izanez gero, profesional osoa lor dezaten. Bide horrek izan behar du, hemendik aurrera ere, gure eguneroko lanaren erreferentzia nagusia.

Filosofia hori errealitatean gauzatzeko, hezkuntza inklusiboaren alde egiten da, haren oinarritzat joz ekitatea, elkartasuna eta aukera-berdintasuna; halaber, lehenetsi egin da oinarrizko gaitasunak eskuratzea, ikasleen aniztasunaren trataera eta ikasteko zailtasunei emandako arreta. Gutxieneko gaitasun-mailak herritarren gehiengo handi batek lortzea denez ezarritako helburu komuna, beharrezkoa da aniztasuna tratatzeko moduak indartzea eta zabaltzea, lehendik ezarrita dauden helburuak eta ibilbideak hartzea eta eguneratzea, eta beste helburu eta ibilbide berri batzuk finkatzea.

Eskola inklusiboa Europar Batasuneko gomendioen testuinguruan

⁸ Hezkuntza premia bereziari buruzko araudia Euskal Autonomi Erkidegoan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.1999.

⁹ “Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan” eta “Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan” eta “Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan”. Hainbat jardunbide egokiren esperientziak eta eztabaidak”. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2005-2006.

¹⁰ 175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa. EHAA - 2007ko azaroak 13, asteartea

Europar Batasuneko herrialdeek, *"Hezkuntza eta Prestakuntza Europan: Sistema desberdinak, 2010.urterako helburu konpartituak"*¹¹ izeneko programaren barruan, zenbait hezkuntza-helburu ezarri dituzte. Horietako batzuk HPBak dituzten ikasleei egiten diete erreferentzia. Horien artean, honako hauek aipa nahi genituzke:

- 1.2. Helburua: Ikasle guztiek oinarritzko gaitasunak eskuratzeko aukera erreala dutela bermatzea, baita gizarte-egoera ahulean daudenek, premia bereziak dituztenek, eskola-sistema goizegi uzten dutenek eta ikasle helduek ere.
- 2.3. Helburua: Herritartasun aktiboa, aukera-berdintasuna eta kohesio soziala sustatzea. Adierazleak:
 - Ikasle, guraso eta interesdun beste batzuk eskolaren kudeaketan parte hartzea.
 - Integratzaileko eta hezkuntza-sarbiderako ereduak eta gizarte-egoera ahuleko taldeen prestakuntza sustatzea.

Europar Batasuneko gomendioak *Europan minusbalotasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko Europako Kontseiluaren 2006-2015 Ekintza Plana*¹² sortzeko marko izan ziren. Planaren helburuak honako hauek dira:

- I. Pertsona guztiek, beren minusbalotasun-mota edo -maila edozein dela ere, hezkuntzarako bidean berdintasuna izan dezaten eta beren nortasun, talentu, sormen eta gaitasun edo trebetasun intelektual eta fisikoak ahalik eta gehien gara ditzaten bermatzea;
- II. Minusbalotasuna duten pertsonen eskolatzeko arrunta izatea bermatzea, agintari eskudunei minusbalotasuna duten biztanleen premiak beteko dituzten hezkuntza-gailuak ezartzea animatuz;
- III. Minusbalotasuna duten adin guztietako pertsonentzat bizi guztian zehar ikaskuntza lagundu eta sustatzea, eta hezkuntza-ikasketen fase desberdinen arteko iragaite eraginkorra erraztea, bai eta hezkuntza eta lanaren artekoa ere;
- IV. Hezkuntza-sistemako maila guztietan, baita haur eta adin txikienetatik hasita, minusbalotasuna duten pertsonen eskubideekiko errespetuzko jarrera garatzea.

Zentzu horretan doaz INCLUD-ED¹³ programan ikerketa europarraren emaitzen ondorioz proposatzen ari diren zenbait gomendio. Helburua, heziketa-praktika eraginkorrak bilatzea da eta jardunbide egoki gisa, nazioarteko zientzia-komunitateak ikasle guztien emaitza akademikoak areagotzen dituztela eta kohesio soziala sustatuz elkarbizitza hobetzen dutela egiaztatzen da.

Orain arte, jardunbide egoki horien ezaugarri esanguratsuenak honako hauek dira:

¹¹ Europako Batzordea. Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusia. 2004 azaroa: Educación y Formación en Europa: sistemas diversos, objetivos compartidos para 2010.

12. EUROPAKO KONTSEILUA. MINISTRO LANTALDEA. Recomendación Rec(2006)5 del Comité de Ministros a los Estados miembros sobre el Plan de Acción del Consejo de Europa para la promoción de derechos y la plena participación de las personas con discapacidad en la sociedad: mejorar la calidad de vida de las personas con discapacidad en Europa 2006-2015. (2006ko apirilaren 5ean, Ministro Lantaldeak egokitua, Ministro Ordezkarien 961. bileran)

13. INCLUD-ED. Strategies for inclusion and social cohesion in Europe from education. VI Programa Marco de la Comisión Europea. <http://www.ub.es/includ-ed/>

- Ikasleen multzokatze heterogeneoa giza baliabide guztiak gelaren barruan izanez.
- Giza baliabide eta ikasleen antolaketarako eredu inklusiboa.
- Ikasteko denbora eta espazioak zabaltzea.
- Familien prestakuntza.
- Eskola-bizitzako alde garrantzitsuen inguruko erabakietan familiak eta komunitatea inplikatzea.
- Irakasleen zientzia-prestakuntza.

2.-HEZKUNTZA LEGEDIA ETA ESKOLA INKLUSIBOA

1/1992 Legea, otsailaren 19koa, EUSKAL ESKOLA PUBLIKOARI BURUZKOA

1/1993 Legeak, otsailaren 19koak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, Zioen Adierazpenean, honakoa adierazten du: "Egungo gizarteetan, eta gero eta gehiago, hezkuntza-sistemek funtsezko zereginak betetzen dituzte **norbanakoan heziketan**. Eskola publikoa, testuinguru horretan, administrazioaren jarduera zuzeneko tresna da, bai **hezkuntza eskubidea bermatzen duen** Konstituzioaren agindua betetzeko, bai **ezberdintasunak berdintzeko**."

3. artikuluan, Euskal Eskola Publikoaren helburuak adierazten dira:

- Konstituzioak aitortzen duen hezkuntza-eskubidea betetzen dela bermatzea, eragozpen ekonomiko edo sozialak edo hori betetzea galarazten duen edozein eragozpen ezabatuz.
- Ikasleen nortasuna eta prestakuntza osoa askatasunez garatzea sustatzea, elkarbizitza demokratikoa ahalbidetzen duten balioak oinarri hartuz, besteak beste, gaitasun eta jarrera kritikoa, berdintasuna, justizia, parte-hartzea, aniztasunari eta kontzientzia askatasunari errespetua, elkartasuna, egonezin soziala, tolerantzia eta elkarrekiko errespetua, bai eta giza eskubideen defentsa, sustatuz.
- Ikastetxeetako kudeaketan, irakasle, guraso eta ikasleen parte-hartze demokratikorako eskubidea sustatu eta bermatzea.
- Irakasleen katedra-eskubidea, gurasoek edo tutoreek ikastetxea aukeratzeko eskubidea, Legeak zehazten duen alorrean, eta, hala badagokio, beren semeentzat aukera dezaketen irakaskuntza erlijiosoa legez aurreikusten diren baldintzetan aukeratzeko eskubidea bermatzea.
- Kalitatezko irakaskuntza eskaintzen dela bermatzea, eman beharreko edukien balio pedagogikoei eta erabili beharreko metodoen eraginkortasunari arreta berezia jarritz, gure inguruan ematen ari diren aurrerapenak kontuan hartuko dituzten metodologia aktibo eta malguak eta dagokion irakasleen birziklatzea txertatuz, bai eta psikologia-, eskola- eta ikaslearen profesional-orientabide aktiboa ere.
- Maila, etapa eta ziklo guztietan esku-hartzea ikasleen jatorri-desberdintasunak orekatzeko elementu gisa.
- Ikasle guztiek, baldintza-berdintasunean, derrigorrezko irakaskuntza aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntza lagunduz.

- h. Euskal Herriko kide gisa ikasleen beren kultura-nortasuna mamitzen laguntzea, beren historia eta kulturak ezagutuz, beren ingurune geografiko, sozioekonomiko eta kulturalean sustraitzea sustatuz.
- i. Ikasleengan ohitura intelektualak, lan-teknikak eta ezagutzak eskuratzea sustatzea, jakintzaren alor guztien artean era integratzailean.
- j. Bake, askatasun eta herrialdeen arteko kooperazio- eta elkartasun-ideien sustapenerako prestakuntza.
- k. Irakasten denaren baterako hezkuntzaren izaera bermatzea.
- l. Irakaskuntzaren edukian manipulatzeko eta doktrinamendu ideologikoaren alde egiten duten ezagutzak ematea baztertzea.

Eta III. KAPITULUAREN 28. artikuluan, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuen funtzioak garatzen dira, hezkuntza-kalitatea hobetzeko asmoz.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa¹⁴

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LEGE ORGANIKOAK, Ekitatea hezkuntzan gaiari buruzko II. Tituluan Printzipioen inguruko 71. artikuluan, hezkuntza Administrazioek ikasle guztiek ahalik eta garapen pertsonal, intelektual, sozial eta emozional handiena, baita Lege honetan orokorrean ezartzen diren helburuak, eskuratzeko beharrezko baliabideak jarriko dituztela dio.

Legeak, hainbat arrazoiengatik hezkuntza-premia bereziak dituzten bost kolektibo bereizten ditu:

- 1.- Hezkuntza-premia bereziak izateagatik
- 2.- Ikasteko aparteko zailtasunak izateagatik
- 3.- Adimen-gaitasun handiak izateagatik
- 4.- Hezkuntza-sisteman berandu sartzeagatik
- 5.- Egoera pertsonalak edo eskolako historialak hala eskatzeagatik

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaren Dekretua gaitasunen eta hezkuntza-inklusioaren ikuspuntutik¹⁵

175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumari buruzkoa, euskal eskolaren hezkuntza-asmoen irakurketa inklusiboa egiten saiatzen da.

Horrela, hirugarren artikuluan ekitatea, elkartasuna eta aukera-berdintasuna oinarritzat dituen eskola inklusiboaren printzipio orokorrak adierazten dira eta honela dio: *"hauek lehenetsiko ditu Oinarrizko Hezkuntzak: ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratzea; ikasleen aniztasunari arreta ematea; gertatu bezain laster hautematea"*

¹⁴ LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. BOE.2006ko maiatzak 4, osteguna

¹⁵ 175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumari buruzkoa. EHAA - 2007ko azaroak 13, asteartea

eta tratatzea ikasteko zailtasunak; ikasleei tutoretzak eta hezkuntza-orientazioa ematea, eta familiekiko harremana zaintzea. Horren guztiaren helburua hezkuntza-ingurune egokia eraikitzea eta ikasteko oztopoak ezabatzea da”.

Aurreko planteamenduak jarraituz, hezkuntza-gaitasun orokor horiek berariazko laguntza-premiak dituzten ikasleen gaitasunen erreferente ere badira, hezkuntza integralerako erreferentzia-ardatz gisa, maila pertsonal, familiar, soziokultural, akademiko eta profesionalean. Hezkuntza-gaitasun orokorrak oinarri hartuta zehazten dira Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak, betiere, oinarrizko gaitasunei erreparatuta. Arduraz bizitzen ikastea; Ikasten eta pentsatzen ikastea; Komunikatzen ikastea; Ikaslearen giza alderdiak garatzen ikastea; Egiten eta ekiten ikastea; Elkarrekin bizitzen ikastea. “Ikastetxeetako bizikidetzak egokia izan dadin, bake positiborako, giza eskubideetarako, justiziarako, elkartasunerako eta inklusiorako heziketa eman behar dute ikastetxeek.” (I. kapitulua, 3. art.)

Aipatu Dekretuaren IV. Kapituluan, aniztasunaren trataerarako hartu behar diren neurriak deskribatzen dira, eta aipatu neurriek izan behar duten orientabidea hartzen da oinarri, hala nola, ikasleen berariazko hezkuntza-premiei erantzutea, haien ikasteko interesa, motibazioa eta ahalmena aintzat hartuta, ingurune normalizatu eta inklusibo batean ikas dezaten eta curriculumean jasotako oinarrizko gaitasunen gutxieneko mailak eskura ditzaten, hori guztia hezkuntza-helburuak bete eta xedeko titulazioak lor ditzaten.

Orientabide horrekin, ikastetxeek, ezarritako jarraibideak oinarri hartuz eta beren autonomia erabilita, ikasleen ezaugarrietara molda eta antola ditzakete ikasketak, bai eta Ikastetxearen Curriculum Proiektuan jasotako hainbat neurri ere.

Neurri horien artean, honako hauek daude: ikasle-talde arruntean laguntza ematea; talde-banaketak; aukerako irakasgaien eskaintza; indartze-neurriak; curriculumaren egokitzapenak; irakasgaiak jakintza-arlotan jasotzea, ikasle-taldeetako irakasleen kopuruak murrizteko; eskolatze osagarriko programak; hezkuntzako esku-hartze orokorreko eta espezifikoko proiektuak; curriculum desberdineko programak eta hezkuntza-laguntza espezifikoa behar duten ikasleen tratamendu banakatua egiteko programak; eta unitate bakoitzeko irakasleen ratioak handitzea.

Era berean, jarduera-planak egingo dira, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen premiei erantzuteko. Plan horiek curriculum-egokitzapenak egin ditzakete, curriculumaren edukietatik eta ebaluazio-irizpideetatik aldenduz. Ikaslearekiko jarduera-planean adierazitako curriculum-egokitzapenen helburua hau da: oinarrizko gaitasunak ahalik eta gehien garatzea ikasle horiengan. Curriculum-egokitzapen horietan finkatutako ebaluazio-irizpideak izango dira ikasleen ebaluazioa eta promozioa erabakitzeke erreferentziak.

Ikasleen eskolaldia arrakastatsua izan dadin, funtsezkoa da hezkuntza-komunitateko sektore guztiek, eta, batik bat, familiek ikasleen hezkuntza-bidean parte har dezaten; hala, dekretu honek erraztu egiten du parte-hartze hori, ikastetxearen hezkuntza-proiektuko planak zehazterakoan. Familiek eta irakasleek parte-hartze eta inplikazio handiagoa duten eskola-antolamendua proposatzen da, irakasleen hezitzaile-izaera indartuko duena. Hala, bermatu egingo litzateke Haur Hezkuntzaren, Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren arteko koordinazioa. (10. art.).

3.-EUSKAL ESKOLA INKLUSIBORAKO EREDU BAT

Euskal Eskola Inklusiboaren Eginkizuna

Eskola integratzailearen bidean hogeita bost urte hauetan egindako lanak, kalitatezko euskal eskolaren eraikitze eta garapen bidean pauso bat gehiago ematea eskatzen du eta eskolaren nortasun-ezaugarrietako bat eskola inklusiboa eraikitzeak izan behar du. Horregatik, Plan honek Euskal Eskola inklusiboaren Eginkizuna hau dela adierazten du:

Ikasteko komunitate abegitsu, kolaboratzaile eta estimulagarria sortzea, norbanako bakoitza bere gaitasun guztietan balioetsia izan dadin, hori baita eskola-arrakasta eskuratzeko funtsezko oinarria. Gainera, irakasle, ikasle, komunitateko ordezkari eta familia guztiek konpartitutako inklusio-balioak garatuko ditu. Eskola-kultura horretatik eratorritako printzipioak izango dira, hezkuntza berrizatzeko prozesu etengabearen testuinguruan, ikastetxe bakoitzean, eguneroko erabakietan eta ikasterakoan erabilitako gida.

Euskal Eskola Inklusiboaren Ikuspegia

Euskal Eskola Inklusiboaren Eginkizunetik abiatuta, Ikuspegian, hezkuntza-sistemaren elementu guztiek beren praktiketan txertatu behar dituzten aldeak zehaztu nahi dira:

Inklusioa berriztapen-prozesuaren muinean egon dadin bermatzea,

politika guztiak *zipriztinduz*, hartara ikasle guztien ikasketa eta partaidetza hobetu dadin, beren baldintza fisiko, intelektual, sozial, emozional, linguistik, etniko eta kulturalak edozein direla ere edo beste talde batean edo ingurune baztertuetan jatorria izan arren

sisteman, ikastetxean eta komunitatean aurki daitezkeen laguntza-neurri guztiak *aktibatuz*

ikasgelako jarduerak eta eskolaz kanpoko jarduerak eskola-arrakasta, gizarteratzea eta ikasle guztien parte-hartzea eragin dezatela *sustatuz*

ikasle bakoitzari bere talde arruntaren barruan, irakaskuntza *pertsonalizatuz* eta etorkizunean baliagarri izango dituen jakintzak definituz.

Eskola inklusiboaren oinarri eta ezaugarriak

Eskola inklusiboaren kontzeptua praktikan jartzerakoan, hezkuntza-erantzunaren ardatza ikasleengan soilik ardaztua egotetik, ikastetxearen testuinguru arruntera pasatzen da. Horrela, metodologia bereizi eta espezializatua ezaugarri zuen hezkuntzaren ikuspegia, geroz eta gehiago hurbiltzen zaio hezkuntza arruntari eta irakasleak eskola-errealitatera moldatzearen erronkaren aurrean jartzen ditu, beren hezkuntza-premia desberdinekin. Eskola-egitura eta -antolamenduan aldaketa egiteari ekin behar zaio, UNESCOren *Manual*

*de la Escuela Inclusiva*¹⁶ bezalako nazioarteko dokumentuetan definitzen den bezalaxe. Eskuliburuaren zehaztasunetako bat analisi-tresna moduan erabilitako *Index for Inclusion* delakoa da eta Euskadira moldaketa *Hezkuntza inklusiboa ebaluatzen eta hobetzeko gida. Eskoletako ikaskuntza eta partaidetza garatuz*¹⁷ izenburupean argitaratu zuen 2005ean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

Aldaketa hori 3 dimentsiotan oinarritzen da:

- *Kultura inklusiboak sortzea*. Kultura horiek, erabakiak gidatu eta irakasle, ikasle, familia eta komunitateko kide guztiek konpartitutako inklusio-balioak garatu behar dituzte. Gure hezkuntza-sisteman Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari dagokio.
- *Politika inklusiboak lantzea*. Politika horiek, ikasle guztien eta bereziki zailtasun gehien dituztenen ikasketa eta partaidetza hobetu dadin, ikastetxearen gaitasuna areagotuko duten ikasketa eta parte-hartzea hobetu behar dute. Hori guztia ikastetxearen Curriculum Proiektuan zehazten da.
- *Praktika inklusiboak garatzea*. Ikasgelako eta eskolaz kanpoko jarduerak ikasle guztien partaidetza eragiten dutela ziurtatu behar dute. Irakasleek ikastetxeko eta tokiko komunitateetako baliabide guztiak erabili behar dituzte guztien ikasketa aktiboa mantentzeko.

Eskola inklusiboaren garapenean, bere osotasunean sistema gisa ulertua, hezkuntzaren esku-hartze guztietan egon behar duten funtsezko bost elementu hartu behar dira kontutan

- *Inklusioa prozesu gisa*. Inklusioa aniztasunari erantzuteko era egokien bilaketa amaiezin gisa ulertu behar da. Desberdintasunarekin elkarbizitzen ikastea eta desberdintasuna oinarri hartuta ikasten ikastea datza. Horrela, desberdintasuna faktore positiboagoa da eta adingabeen eta helduen ikasketarako sustagarria.
- *Ikasketa eta parte-hartzeari oztipoak identifikatu eta ezabatzea*. Ondorioz, iturri aniztetako informazioa bildu eta ebaluatu behar da politika eta praktika inklusiboetan hobekuntzak planifikatzeko. Eskuratutako informazioa sormena pizteko eta arazoak konpontzeko erabiltzean datza. Martxan jar daitezkeen *ekintza giltzarriak* eta praktika garatzen laguntzen dutenak, erakundearen eta bere kideen jokabidea aldatuz. Ekintza horiek, ikasleen aurrerapenak ebaluatzen, esku-hartze desberdinen eragina ebaluatzen, politika eta prozesuen eraginkortasuna analizatzeko, ekimen berriak planifikatzeko eta abarretako beharrezko diren datuak biltzearen garrantzia daude oinarrituta.
- Hori egin ahal izateko, datuak, justizia osoz, etengabeko hobekuntzaren arima gisa uler daitezke.
- *Ikasle guztien bertaratzea, parte-hartzea eta errendimendua*. «Bertaratzea» esatean, ikasleek ikasten duten lekuari egiten zaio erreferentzia, joatearen portzentajea eta puntualtasunari; «Parte-hartzea» esatean, berriz, ikasleek eskolan daudenean duten esperientziaren kalitateari egiten zaio erreferentzia eta, beraz, halabeharrez, ikasleen iritzia ere jasotzen du; eta «errendimendua» hitzarekin, eskola-programan zehar ikasleek izandako eskola-emitzei egiten zaie erreferentzia, baina ez soilik test edo azterketen emitzei.

¹⁶ Ainscow eta Booth: *Index for inclusion*. 2002. Centre for Studies on Inclusive Education (CSIE) Bristol, Erresuma Batua.

¹⁷ Tony Booth/Mel Ainscow. Hezkuntza Inklusiboa ebaluatzen eta hobetzeko gida. Eskoletako ikaskuntza eta partaidetza garatuz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.2005.

- *Eskola “Laguntzaren” ikusmolde berritua.* Testuinguru honetan, “laguntza” gisa, ikasleen aniztasunari erantzuteko euskal hezkuntza-sistema osoaren eta ikastetxe bakoitzaren gaitasuna areagotuko duten jarduerak ulertzen dira. Ikasgelako eta eskolaz kanpoko jarduerak ikasle guztien parte-hartzea sustatuko dutela bermatzen saiatzen da eta eskola-ingurutik kanpo beren ezagutza eta esperientzia kontuan har dezaten ikaskuntza eta parte-hartzeari jarritako oztupoak gainditu asmoz. Irakasleek ikastetxeko eta komunitateetako baliabide guztiak erabili behar dituzte ikasle guztien ikasketa aktiboa mantentzeko.
- *Baztertuak, alde batera utziak edo errendimendu hoberena ez eskuratzeko arriskua duten ikasle-taldeei arreta berezia.* Horrek, estatistikoki «arriskuan» dauden taldeak arretaz jarraituak izatea eta, behar den guztietan, beren bertaratzea, parte-hartzea eta errendimendua hezkuntza-sisteman bermatzeko beharrezko diren neurri guztiak hartzeko erantzukizun morala dakar.

Hezkuntza sistema inklusiboak, eskolak ikasleen ikasketa eta parte-hartzeari jartzen dizkion oztupoak gaindituko dituzten hezkuntza- eta curriculum-proiektuak sustatu beharko ditu, beren hezkuntza-jardunbide egokiak komunean jartzeko aukera eskainiko dituzten ikastetxe inklusiboen sareak sortuko ditu, hezkuntza-eragileen koordinazioa sustatuko du oztupoak gainditzeko laguntza egokia emateko eta eskolan ikasle guztien hezkuntza-inklusioren aldeko familia-mugimenduak sustatuko ditu.

Azken finean, Inklusioak honakoa esan nahi du:

Aniztasuna eta, beraz:

- Inklusioak ez dio ikasle-talde zehatz bati egiten erreferentzia, eskolako ikasle guztiei baizik.
- Giza aniztasuna balio gisa ulertzea.
- Kategorizazioa txikiagotu behar da.

Ikaskuntza eta parte-hartzea eta, beraz:

- Bai irakasleei bai ikasleei eragiten dieten ikaskuntza eta partaidetzarako oztupoak baztertzea esan nahi du.
- Tokiko eskolako komunitatearen bizitza akademiko, sozial eta kulturean parte-hartzea esan nahi du.
- Ikasle guztiek ikasteko duten eskubidea dakar.

Demokrazia eta, beraz:

- Ahots guztiak entzun beharko lirateke.
- Lankidetzaren funtsezkoa da maila guztietan.

Eskola bere osotasunean eta, beraz:

- Ikaskuntza eta partaidetzari jarritako oztupoak eskolaren alde guztietan agertzen dira. Lehenak ez lirateke ikastun indibidualen barruan daudenak ulertu behar.
- Guztiak dira ikastunak: irakasleak, administrazio- eta zerbitzu-langileak, ikasleak eta komunitateko kideak.
- Inklusioak ez die soilik eskola-praktikei erreferentzia egiten, sistemaren maila guztietan, hezkuntza-instituzioen kultura eta politikei ere egiten baitie.

- Eskola da sistema gisa aldatu behar dena.

Gizartea bere osotasunean eragiten duen prozesua eta, beraz:

- Hezkuntza-inklusioa eta eskusioa gizartean guztiontzako justiziarekin daude lotuta.
- Gai politikoa da, eta horregatik polemikoa.
- Prozesu etengabea da, ez eskura litekeen egoera bat, ezta behin eskuratuta galdu ezin den ziurtagiri bat.

Booth, Nes eta Stromstad (2003, 168. orrialdea)¹⁸

Hori ez da printzipio eta jarraibide orokorrak adierazten dituen ikuspegi teoriko hutsa, ikaslea hezkuntzaren esku-hartzearen muinean jarri nahi baitu bere gaitasun guztiak aktibatuz eta etorkizuneko bizitza helduan moldatzeko gaitasun nagusien garapen hoberena ahalbidetuz.

Etengabe berritu behar den ikuspuntu horrek, ikasgelako ikasle guztiak, eta bakoitza partikularki, kontutan hartzea eskatzen du, erantzunak pertsonalizatuz, esku-hartzeko era aldatuz, eta ikasgelako ikasle guztiengan adin txikienetatik eraginez, beren garapen pertsonal eta akademikoan topa ditzaketen oztopoak aurreikusiz.

Orientazio inklusiboak, ikaslearengan oinarrituta eta eskola-arrakasta lagunduko duenak, honako hau behar du:

- egoeraren azterketa,
- aldaketa metodologikoak egitea,
- ikasle guztiekin sarri elkarrekintzak ezartzea,
- haur eta nerabeen hezkuntzan era batera edo bestera eragiten duten sektore guztiak inplikatzeko,
- kolektibo hezitzaile, familia eta komunitateko eragileen artean konpartitutako erantzukizunak ezartzea,
- prozesuak era sistematikoan ebaluatzea (bai irakasleen esku-hartzearen, ikaskuntza eskuratzearen ikuspuntutik bai hezkuntza-sistemak bere osotasunean eta ikastetxeak zehazki adierazten dituen oztopoen ikuspuntutik),
- komunitateak sortzen dituen gaitasun eta oztopoak identifikatzeko, bere heziketa-lana betetzeko familiak aurkitzen dituenak,

¹⁸ Booth, T., Nes, K. & Stromstad, M. (Ed.) (2003). Developing inclusive teacher education. Londres: Routledge Falmer. Gerardo Echeita, Ángeles Parrilla eta Francesc Carbonell i Parísek aipatua. XXV JORNADAS DE UNIVERSIDADES Y EDUCACION ESPECIAL. Universidad de Vic. 2008ko martxoaren 12 eta 13. PONENCIA-MARCO."Hacia un marco de referencia común para la educación del alumnado en desventaja. La educación especial a debate"

➤ etab.

Eskola inklusiboaren lehentasunak

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak, hezkuntzan Ekitateari buruz hitz egiten duen II. Tituluan, euskal hezkuntza-sistemaren beraren lehentasun diren berariazko hezkuntza-laguntza behar duten bost ikasle-talde identifikatzen ditu:

KONTSULTA DOKUMENTUA

Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erreferentzia egiterakoan, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 72. artikulua berariazko arreten eta kolektibo horrentzat esku-hartzearen eremua mugatzen du. *“Ezgaitasunak edo jokabide-nahaste larriak izateagatik eskolatze-aldi batean edo eskolatze osoan berariazko hezkuntza-laguntzak edo hezkuntza-arretak behar dituztenak dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.”*

Ekintza Plan honek Osasunaren Mundu Erakundeak proposatutako Funtzionamendu eta Minusbalotasunaren eredu, CIF (OME, 2001)¹⁹, hartzen du. Ereduak norbanakoaren funtzionamendua definitzen du osasun-baldintzen eta testuinguru-faktoreen arteko elkarrekintza-terminoetan, hau da, pertsonaren eta bere inguruaren arteko elkarrekintza oinarri hartuta.

Minusbalotasuna duten pertsonen buruz hitz egiten denean, kontuan izan behar ditugu ikasle batek bere bizitza ahalik eta era normalizatuenean eramateko aukera eskaintzen duten laguntza-mailak. Horretarako, laguntza egokiak behar dira, laguntza-mailak testuinguruan aktibatu behar diren baliabide eta ekintzak egituratu behar dituela ere kontuan hartuz, bai eta instituzioetako eta komunitateko eragile guztien esku-hartze koordinatua ere. Arreta berezia merezi dute eguneroko bizitzan laguntza orokorrak behar dituzten ikasleek.

Jokabide-arazo larriak dituztenei dagokionez, hainbat jatorri dituztela eta batzuetan era askotakoak direla adierazi behar da: batzuk, ingurune sozialean dauden oreka gabeziek sortzen dituzte, beste batzuk, berriz, buru-gaixotasunetan dute jatorria, beste batzuk, portaera-fenotipo zehatzei erantzuten diete... Hala ere, horiek guztiak, oso antzekoak diren portaera ezegoki bidez adierazten dira eta funtsean, hiru kategoriatan bana daitezke: oldarkortasuna, aurkakotasuna eta arauak ez betetzea eta gatazkak harreman pertsonal eta sozialean.

Jokabide-arazo larriek adin txikikoaren garapen pertsonal eta sozialean eta inguratzen duen ingurunearen ongizatean (familia, eskola, komunitatea...) narriadura garrantzitsua eragiten dute. Testuinguru zehatz batzuetan, jokabide-arazo larriak dituzten ikasleek jokabide antisozial gisako eredu mantentzen dute. Eredu horrek gainerako eskubideak urratzen ditu eta bere egoera pertsonala ulertzen eta gainerako pertsonen eta bere gizarte-taldearen eskubideak onartzen lagunduko dioten esku-hartze hezitzaileak behar ditu.

Arazo horren konplexutasunak hezkuntza-esparruaren esku-hartzearen aukera eksklusiboak gainditzeko, lotuta dauden beste alor batzuetan, hala nola, familian, osasunean eta gizartearen, eragin ditzakeen ondorio larri eta garrantzitsuengatik.

Ikasteko Aparteko Zailtasunak dituzten ikasleak

Ikasteko Aparteko Zailtasunak (IAZ) dituzten ikasleek entzumen, mintzamen, irakurmen, idazmen, arrazoimen edo matematikako trebetasunak eskuratu eta erabiltzen diharduten oinarritzko prozesu psikologiko bat edo gehiagotan nahasmendua adierazten dute. Ikasteko aparteko zailtasunak gabezia psikiko, sentzorial, motor edo emozionalarekin edo kanpo-eraginekin, hala nola, arazo soziokultural, heziketa ezegoki edo urriarekin batera ager badaitezke ere, ez dira baldintza edo eragin horien ondorio.

Talde honen barruan honakoak aurki ditzakegu:
Irakurtzen ikasteko aparteko zailtasunak

¹⁹ Osasunaren Mundu Erakunde. Clasificación Internacional del Funcionamiento, de la Discapacidad y de la Salud «CIF». Madril: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Secretaría General de Asuntos Sociales. Instituto de Migraciones y Servicios Sociales (IMSERSO); 2001.

Idazten ikasteko aparteko zailtasunak
 Kalkulu aritmetikoa ikasteko aparteko zailtasunak
 Aho-mintzaira ikasteko aparteko zailtasunak

Gaitasun Handiko ikasleak

Beren ikaskideekin batera, hezkuntzan laguntza-premia orokorrak dituzten ikasle-multzo zabala izateaz gain, berezitasun bat dute, maila desberdinetakoa izan daitekeena eta hartutako adierazle batekin edo batzuekin lotuta dagoena.

Gaitasun Handien kontzeptuak, ingurune-faktoreek (familia, eskola, ikaskideak) baldintzatuta, nortasunaren alor desberdinetan (kognitibo-intelektuala, motorra, afektiboa, pertsona arteko harremana eta ekintza eta gizarteratzea) agertzen diren gaitasun intelektuala, sormena eta motibazioari loturiko aldeak biltzen ditu.

Hezkuntza Sisteman berandu sartu diren ikasleak

Beste herrialde batzuetatik etorri izanagatik edo beste arrazoren batengatik, gure hezkuntza-sisteman berandu sartu diren ikasleek osatzen duten multzoa da. Beste herrialde batzuetakoak izateagatik edo beste edozein arrazoiengatik hezkuntza-sisteman berandu txertatu diren ikasleei hezkuntza-sisteman txertatzeko aukera eman behar zaie. Txertatzeko aukera hori, nolanahi ere, derrigorrez eskolatzeko adinean bermatuko da.

Eskolatzeari ikasle horien baldintzak, ezagutzak, adina eta ikasketen historiala kontuan hartuta egingo dela bermatu behar da, era horretan ikasleak beren aurretiazko ezaugarrietarako eta jakintzetarako maila egokienean eta bidezko laguntzekin has daitezten, eta beren hezkuntza probetxuz jarrai dezaten.

Hezkuntza-sisteman berandu txertatzen diren ikasleen gurasoek edo tutoreek hezkuntza-sisteman txertatzeak dakartzan eskubideei, betebeharrei eta aukerei buruzko aholkularitza jasotzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira.

Egoera pertsonalak edo eskolako historialak dituzten ikasleak

Berariazko hezkuntza-arreta behar duten ikasleek osatzen dute taldea. Arreta horretarako **arrazoiak** honako hauek izan daitezke:

- a) Hizkuntza-gabezia larriak edo gaitasunetan edo oinarritzko ezagutzetan gabezia larriak agertzeagatik. Ikasle horiek Komunikazioan, hizkuntzan edo hizkeran ez dituzte garapenaren jarraibide arruntak eta sistemaren osagai bat edo batzuk eragiten ditu.
- b) Osasun-arazoak ditu, aldi batekoak edo kronikoak edo funtzio-exekuziokoak, eta zuzenean eskola-errendimenduan eragiten dute, beren curriculum-aurrerapenean arazoak sortaraziz.
- c) Eskola-absentismo altua, arrazoi desberdinengatik huts egite-aldi luzeak, ikastetxe-aldaketa ugari etxebizitzaz aldatzeagatik, edo beste arrazoi batzuek.
- d) Baldintza soziokultural mugatuengatik, era egokian akuilatzen ez duen ingurunea, eta ikaslearen ikasketak hobetzeko nahikoa baliabide ez izatea, ez eta bere garapen pertsonal eta sozialerako ere.

Ikasle horiekin egin beharreko esku-hartzea, nolanahi ere, talde arrunten eskolatzearekin batera egingo da, beren ikasketa-maila eta -garapenaren arabera, beharrezko laguntzak emanez ikuspuntu inklusibo batez eta ikasgela arruntaren jarduerai era orokorrean lotuz. Hala zehazten den kasuetan, berariazko laguntza-mota zehatzak egin ahal izango dira.

KONTSULTA DOKUMENTUA

4.-EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN ERRONKAK INKLUSIOAREN IKUSPUNTUTIK

Eskola inklusiboari buruzko dokumentu honekin egin nahi den gogoetaren abiapuntua gure Autonomia Erkidegoan eskola-integrazioaren alorrean gaur arte egon den errealitatearen azterketa da eta abiapuntu hori hartuta, ahalik eta inklusio zabalenerantz aurrera pausoak ematea du helburu.

Zalantzarik gabe, UNESCOk bere Hezkuntzari buruzko Nazioarteko hainbat Konferentzian proposatutako lerroa jarraitzen da. Konferentzia horietako azkena 2008ko azaroan egin zen eta bere lema "Hezkuntza Inklusiboa: etorkizunerantz bidea"²⁰ izan da. Hala ere, ezin ahanztu dezakegu hezkuntza inklusiboa etengabe garatzen doan kontzeptu bat dela eta guztiontzako Hezkuntzaren helburuen markoan diskriminazio, desberdintasun eta bazterketaren arrazoi eta ondorioez arduratzen diren politika eta estrategiak bideratzeko baliagarria izan daitekeela.

Hezkuntza inklusiboa, ikasle guztien eskola-integratziorako arrazoizko mailak lortzeko printzipio gidari gisa uler daiteke. Integrazioaren ikuspuntu zabalago baten testuinguruan, hezkuntza inklusiboak, heziketa jasotzen ari direnen aniztasunari berari erantzungo dioten ikasketa-estrategia sorta zabala adieraztea eta aplikatzea dakar berarekin. Zentzu horretan, hezkuntza-sistemek, haur eta gazteen alde aurreko itxaropenei eta beharrei erantzun behar diete, kontuan hartuz eskema "zurrin" baten oinarriaren gainean ikasketa-aukera errealak eskaintzeko gaitasuna oso mugatua dela. Hori da kokaleku-paradigmatzat jo daitekeena; hau da, hezkuntza inklusiboa "leku" gisa kontzeptualizatzen denean eta ez hezkuntza arrunteko ikasgelan erreferentzia-puntu moduan eskaintako zerbitzu gisa.

Hezkuntza inklusiboaren eta integrazioaren inguruko eztabaidak ez dio integrazio eta inklusioari buruzko politika eta ereduaren arteko dikotomiari erreferentziarik egiten - integrazioa inklusiorik gabe eta inklusioa integratziorik gabe egin ahal balitz bezala-. Eztabaidaren muina, eskola guztiek pertsona guztien eta pertsona bakoitzaren inklusioa bermatzeko erantzukizun moralak dutela ulertzeko bidean pausoak zein neurritan ematen ari diren zehaztean dago.

Azken urteotan, hezkuntza inklusiboaren kontzeptuak bilakaera bat izan du eta haur eta gazte guztiek, nahiz eta kultura-, gizarte- eta ikasketa-aniztasuna izan, eskola-mota guztietan ikaskuntza-aukera baliokideak izan beharko lituzketela adierazten duen ideiarantz eman dira pausoak. Arreta-gunea ingurune inklusiboak sortzean dago eta horrek honako elementuak dakartza berarekin: a) kultura, gizarte eta norbanakoaren aniztasunarekiko errespetua, elkar ulertzea eta arreta; b) kalitatezko hezkuntza eskuratzeko aukera berdintasun-baldintzetan; eta c) beste politika sozial batzuekin koordinazio estua. Puntu horietan guztietan, kontuan hartu behar dira alde interesdunen eta gizarte-eragileen aurretiazko itxaropenak eta eskaerak.

Nahiz eta talde ahul eta baztertuen artean kategoria desberdinak izan, hezkuntza inklusiboaren kontzeptua ez dago kategorizazioan oinarritua, eta haur guztiei, hezkuntza-testuinguru egokietan, aukera errealak eskaintzeko asmoa du.

Indargune, ahulezi, mehatxu eta aukeren azterketa oinarri duen gogoeta honetatik, hezkuntza-sistemak eskola inklusiboarekin lotuta, datozen urteetan mahai gainean dituen erronkak sortzen dira.

²⁰ UNESCO (2008): La educación inclusiva: el camino hacia el futuro. Erreferentzia-dokumentua. Ginebra: UNESCO.

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
• Garapen arauemailea: - Apustu inklusiboa finkatzea. Erabakiak hartzeko prozesuak, baliabideak eta laguntzak definitzea HPB dituzten ikasleen arretarako (1998ko Dekretua, ebazpenak eta aginduak). - Oinarritzko hezkuntzari buruzko dekretu berrian (175/2007 Dekretua) "Elkarrekin bizitzen ikasi" erreferentzia-ardatz gisa txertatzea. • Lehentasunezko ekintza-lerroak eta programen ezarpena: - Lehentasunezko lerro gisa azken hirurtekoetan (2000-2003; 2003-2006 eta 2007-2010) eskola inklusiboaren aldeko apustua jartzea. - Programak dibertsifikatzea behar berriei erantzuteko: Arreta Orokorreko proiektuak, Bizikidetasuna, Kultura aniztasuna, HBEHP... • Laguntza-egiturak: - ZIGak (Zereginen Ikaskuntzarako Gelak) finkatzea - Laguntza-zerbitzu berriak sortu edota finkatzea: Berritzeguneak, IBT, ospitaleko eta etxeko hezkuntza arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarriko lurralde zentroak. - Hainbat elkarte eta erakundek (FEVAS, ONCE...) parte-hartzea duten jarraipen-batzordeak. - ISEI/IVEI sortzea. Beharren ebaluazioa, ikerketa eta antzemateko aukera eskaintzen du. • Laguntza pertsonalak: - Laguntza-figurak sendotu eta berriak txertatzea: Kontsultaria, Entzumena eta Hizkuntza I., Hizkuntza Errefortzua, Kultura arteko Dinamizatzailea, Okupazio Terapeuta, Fisioterapeutak, Hezkuntza Laguntza Espezialistak... • Curriculum-egokitzenak: - Curriculum-egokitzapenak praktikan jartzen aurrerapena eta curriculum-malgutasuna tresna pedagogiko gisa. - Prestakuntza-prozesuak eta lan-mintegiak praktikan integratzeko.	• Garapen arauemailea: - Sistemaren gehiegizko normatibizazioak eskolan dagoen aniztasun handiari era global eta egokian ekitea galarazten du. • Lehentasunezko ekintza-lerroak eta programen ezarpena: - Ikasle guztiei oinarritzko gaitasunak garatzeko aukera emango dieten Esku-hartze Proiektu Globalak eta beren diseinuan curriculum-garapen inklusiboak gutxi ezarri dira. • Laguntza-egiturak - Ekipo Tekniko iraunkorra eta espezializatua falta da, eskola inklusiboaren garapen-prozesu osoa barne hartuko duena laguntza-zerbitzuekin elkarlanean. - Sail arteko (sare sozialak, osasunekoak, hezkuntzakoak) politika ez sendotuak premia konplexuei erantzuteko (buru-osasuna, iritsi berriak, gizarte-egoera ahulak...) - Premien irakurketa indibidualki soilik egitea eta egoera puntualen aurrean zatikako erantzun-praktikak bai Sailaren kudeatzaileen bai ikastetxeen aldetik, baliabideak artikulatzeko behararen aurrean. • Prestakuntza eta ebaluazioa: - Inklusio-sistema sustatzeko ikastetxeetako aholkulari-taldeak eta funtsezko figuren berariazko prestakuntza-programak gutxitzea. - Korrelazio baxua ikastetxean prestakuntza aktibatuaren eta praktika inklusiboaren artean. - Alor honetan lan egin duten profesional eta erakundeak ezagutzea eta esperientzia ez aprobetxatzea. - Gure hezkuntza-sistemaren ebaluazio-kultura gutxi. • Inklusioa zailtzen duten praktikak: - Hitzaldiaren higadura, Kalitatezko Euskal Eskola Inklusiboarekin ez bat egitea datozen praktikekin bateragarri eginez. - HPB edo hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen trantsizio desberdinetan ematen diren zailtasunak. - Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen banaketa desberdina hezkuntza-sistemako sare edota ikastetxe desberdinetan. - Ahalmen inklusibo altua duten guneei arreta gutxi jartzea: jolas-orduak, jantokiak, eskolaz kanpoko jarduerak. - HPB dituzten ikasleei irakasleek eskaera baxua egiteko arriskua.

AUKERAK:	MEHATXUAK:
- Aniztasuna dagoela ikastetxeetan egiaztatzea. - Eskola inklusiboaren ereduarekiko hezkuntza-administrazioak agertzen duen sentsibilizazioa. - Curriculum berriaren konpetentzia-ikuspuntuak guztientzat eskola-arrakasta eskuratzeko aukera eskaintzen du, esku-hartzeari ikuspuntu inklusibo batetik ekinez. - Eskolan giza baliabide osagarriak egotea, antolaketa malgutzeko, laguntzak eta esku-hartzea era malgu eta eraginkorragoan artikulatzeko aukera eskaintzen dutenak. - Elkartze-mugimenduaren aldetik elkarlana eta laguntza.	- Geroz eta sakonagoa den krisi ekonomikoa, baliabideak ematerakoan izan dezakeen eraginagatik. - Sistema bere buruarekin atseginez egotea, orain arte egindakoa nahikotzat hartuz eta gizarte- eta hezkuntza-premia berriei nahikoa arreta jarri gabe. - Zenbait taldeekiko aukera inklusiboak gelditzea, nahikoa artatuak daudela pentsatzeagatik, kalitatezko eskola inklusiboaren ikuspuntua galduz.

ERRONKAK

Euskal hezkuntza-sistema osoaren funtsezko xedeetako bat *Pertsona guztiek kalitatezko hezkuntza izateko duten eskubidea bermatzea da*. Hezkuntza-inklusioa kalitatezko hezkuntza horren ezaugarrietako bat da.

Pertsona guztientzako kalitatezko hezkuntzak, besteak beste, ondoko proposamenak dakartza:

- Pertsona guztiei *aukera-berdintasuna eskaintzea eskola-arrakasta* lor dezaten, beren sexu, minusbaliotasun, ekonomia- eta gizarte-baldintza, kultura, hizkuntza edota jatorrizko etnia edozein dela ere.
- Pertsona guztiek gizarte demokratiko batean pertsona gisa eta herritar gisa garatzeko eta lan-munduan aktiboki integratzeko beharrezko dituen *oinarrizko gaitasunak* eskura ditzaten bermatzea.
- Derrigorrezko eskolatze-adinean edo oinarrizko gaitasunak behar adina eskuratu gabe *eskola-hezkuntza uztearen joera* murriztea.
- *Ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetza sustatzea*, lehentasuna emanaz hezkuntza- eta gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei, eskola-ingurunean hezkuntza-inklusioa galarazi edo zailtzen duten oztopo horiek guztiak identifikatuz eta irauliz.
- *Derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak egiten dituzten ikasle-kopurua handitzea*, ikasketa profesionalak edo Batxilergokoak, beren gaitasun eta interesen arabera, erabakia arrazoi ekonomiko edo kulturalak edo beste batzuek baldintzatu gabe.
- Pertsona guztiei, eskola-hezkuntzaren denboraldia amaitu ostean, *bizitza osoan zehar ikasteko* aukerak eskaintzea pertsonak aukeratzen duen ildoan: kulturala, akademikoa, profesionala...
- Pertsona guztiek beharrezko gaitasunak eskuratzeko neurriak jartzea beren *bizitzaren proiektu pertsonala* garatzeko aukera izan dezaten.

Ezaugarrietako bat hezkuntza-inklusioa izango duen kalitatezko euskal hezkuntza-sistemaren aldeko hautuak ikuspuntu horretatik eginiko kudeaketa-estiloa dakar eta horrek, ondoko erronkei aurre egitea:

1. Pertsona, ikaslea, guztientzako arrakasta-orientazioaren barruan ikasleari hezkuntza-ekintza inklusiboko gune gisa hartzea.
2. Curriculumaren garapena ikuspuntu inklusibotik.
3. Hezkuntza-prozesuan ematen diren trantsizio desberdinen kudeaketa inklusio-, hezkuntza- eta gizarte-ikuspuntutik egitea.
4. Berrikuntza-proiektu globalak sustatu eta dinamizatzea eskoletan, inklusio-hezkuntzaren aldeko aldaketa-gune gisa.
5. Laguntzen antolamendu artikulatua euskal hezkuntza-sistema inklusiboan.
6. Familiak eta komunitateak hezkuntza inklusiboan parte hartzea.
7. Berriazko laguntza-premien esparruan ezagutza, ikerketa eta ebaluazio pedagogikoa eskuratzeko kalitatezko hezkuntzaren zati gisa.
8. Hezkuntza inklusiborako garapen profesionala.

9. Politika eta praktika inklusiboen garapenaren kudeaketa.
10. Hezkuntza-premia berrietara egokitu eta horiek hornitu, jarraitu eta artikulatuko dituen hornidura euskal hezkuntza-sistemaren ikuspuntu inklusibotik.

KONTSULTA DOKUMENTUA

5.-EUSKAL ESKOLA INKLUSIBOA GARATZEKO EKINTZA PLANA

Euskal Herrian eskola muinbakar eta integratzailearen aldeko hogeita bost urte hauek eguneratu egin behar dira guztiontzako eskolaren ikuspuntutik.

Eskola inklusiboa aberastu egiten da herritar guztientzat, hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonak barne, Bizi Kalitatea bezalako kontzeptu eta paradigma berriekin, baita Pertsonan Oinarritutako Plangintza (PCP, *person-centred planning*), minusbaliotasunaren gizarte-eredua, esku-hartzeko lerro berdinean sare-lana, etab. bezalako esku-hartze gizarte-hezitzailearen beste aurrerapen batzuk ere.

Bestalde, adimen-osasuneko arazoak geroz eta kolektibo zabalagoetara, haurtzarora eta nerabezarora barne, iritsi izana, eragin txikia duten baina eskola-adinean dauden pertsonen eragiten dieten gaixotasunak sortu izana, bazterketa-arriskua duten talde sozialak egotea, azken urteotan gure komunitatera immigranteak iritsi izana... gure gizartea bere hezkuntza-erantzunak geroz eta zabal eta anitzagoak diren kolektibo kultural eta sozialetara moldatzera derrigortzen duten faktoreak dira.

Geroz eta gaurkotasun handiagoa duten gai horiek eskola inklusibo baten markoan, eskolan eta gizartean esku-hartzeko irizpideak egokitzea eskatzen dute, ikasle guztientzat garapen pertsonal egokia eta eskola-arrakasta bermatuz. Halaber, guztiontzako eskolaren testuinguruan, era espezializatuan ekin behar zaie gai horiei, banakako esku-hartze horren eta erreferentzia taldearen eta ikasketa gehienak garatzen diren eskola-komunitatearen parte izatearen arteko oreka eskuratzea xede izanez.

Azken finean, ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetzarako dauden oztopoak alde batera uzteko baldintza egokienak sortzean datza.

BEHIN BEHINEKO ETORKIZUNA

EKINTZA PLAN hau, 2009-2010 ikasturtetik 2015-2016 ikasturterako behin-behineko etorkizunean kokatzen da. Epe hori amaitzen denean eta planaren garapen-ebalazioa egin ostean, berrazterketa bat egin beharko da.

EKINTZA PLANAREN HELBURUAK

Lehen aipatutako erronkak, Euskal Eskola Inklusiboa garatzeko hamar ekintza-helburutan zehazten dira.

1. Pertsona bakoitzaren gaitasunen garapena eta ikasle guztien eskola-arrakasta ardatz izango dituen euskal hezkuntza-sistema bultzatzea.
2. Curriculumaren garapena eta zehazpena ikastetxe eta ikasgeletan ikasle guztien gaitasunak sustatzean eta ikasle bakoitzaren eskola-arrakastan oinarritzeko aukera eskaintzea.
3. Hezkuntza-prozesuan ematen diren trantsizio desberdinak, guztien arrakastarako aukerak eskainiko dituen hezkuntza-ikuspuntu inklusibo eta sozial batetik gara daitezen sustatzea.
4. Berrikuntza-proiektu globalak garatzea eskoletan, inklusio- eta arrakasta-hezkuntzaren aldeko aldaketa-gune gisa.

5. Hezkuntza-sistemako maila desberdinen antolamendua sustatzea, laguntzak artikulatuz, bere osotasunean, ikasleentzako inklusio- eta arrakasta-sistemaren eraikuntzarantz doan bidea egin dezan.
6. Familiak eta komunitateak hezkuntza inklusiboan parte har dezaten behartu eta erraztu.
7. Berriazko laguntza-premiei erantzuteko esparruan, kalitatezko hezkuntzaren zati gisa, ezagutza, ikerketa eta ebaluazio pedagogikoa eskura dezaten sustatzea.
8. Irakasleen gaitasun profesionalak, prestakuntza eta garapen profesionala aktibatzea, guztien arrakastara zuzenduriko eskola inklusiboaren lehentasunen zerbitzura.
9. Politika eta praktika inklusiboen garapena kudeatzea.
10. Hezkuntza-premia berrietara egokituko diren baliabide egokiak eta horiek hornitu, jarraitu eta artikulatzea euskal hezkuntza-sistemaren ikuspuntu inklusibotik.

1**PERTSONA BAKOITZAREN GAITASUNEN GARAPENA ETA IKASLE GUZTIEN ESKOLA ARRAKASTA ARDATZ IZANGO DITUEN EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA BULTZATZEA.**

Hezkuntza-sistema inklusiboaren abiapuntuaren arreta-gunetzat pertsona bakoitzaren gaitasunak garatzea eta eskola-arrakasta eta gizarteratzea xede duen bidean laguntzea hartu behar da. Eskola-etapan zehar, heldu-bizitza ahalik eta independente eta autonomoena egiteko prestatu eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko trebetasun eta gaitasunak edukitzeko aukera eskaini behar zaio.

Ikuspuntu pertsonalizatu horren ondorioz, hezkuntzan esku-hartzen duten eragile guztien elkarlana behar da hezkuntza-praktikak hobetu ahal izateko. Horretarako, argi izan behar da erantzuna ikasle guztien gaitasun, interes eta beharretara moldatzea lehentasunezkoa dela.

Indibidualizazio-printzipioa gako garrantzitsua da eta ikaslea, banakako pertsona gisa, muinean jartzean datza. Ikasle guztientzat leku izango diren eta beren desberdintasunak errespetatuko dituzten sistemak, gelak, sortzean gatzatza. Sistema horiek giza aniztasunaren aberastasunaz ohartzen, hori aitortzen, errespetatzen eta lankidetzatza eta laguntza sustatzen lagundu behar dute. Hori egin ahal izango da baldin eta eragile guztiek konpromiso bat hartzen badute eta bazterketa eta bereizketa beharrean, inklusioa sustatuko duen eredu sinesten badute.

Hezkuntzaren pertsonalizazioranzko bide horrek hezkuntza-eredu eraginkorrak identifikatzera eraman behar gaitu. Eredu horiek sisteman orokortu beharko lirake eta pertsonen beren ikasketa-erritmoan laguntzen, zailtasunei heltzen eta izan litekeen eskola-arrakastarantz laguntzen ahalegindu beharko lirake.

HELMUGAK

- 1.1.-Ekintza Plana indarrean dagoen bitartean, banakako hezkuntza-eredu eraginkorrak identifikatzea, gure hezkuntza-sistemara egokitzea, eskola-taldeetan era kontrolatuan proban jar daitezen proposatzea eta emaitzak zabaltzea sisteman era orokorrean ezarri.
- 1.2.- Plan hau ezartzeko muga hirugarren urtea izatea, akademia-arautegiak malgutzeko lege-aukerak aztertzea ikasle bakoitzaren premia eta eskuratze-erritmoen arabera, oinarritzko gaitasun garapenean aurrera pausoak eman ahal izateko. Lagarren urtetik aurrera orokortuko litzateke.
- 1.3.-Plan hau ezartzen denetik bigarren eta hirugarren urtean, gaitasun handiko ikasleak lagunduko dituzten programa pertsonalizatuak eguneratu eta ezartzea. Horrela, beren garapen pertsonalean eta sozialean aurrera pausoak emango dituzte beren gizarteratze eta doitze pertsonalerako funtsezkoak diren aldeak galdu gabe.
- 1.4.-Bigarren urtean zehar, dauden programak ebaluatzea eta hirugarrenetik aurrera, ikasteko aparteko zailtasunak dituzten ikasleentzat programa pertsonalizatu berriak ezartzea, beren aukerak indartu eta eskola-arrakastarantz bidean laguntzeko, banakako eta taldeko laguntza-neurriak ezarri, testuinguru inklusiboetan.

1Helburua: PERTSONA BAKOITZAREN GAITASUNEN GARAPENA ETA IKASLE GUZTIEN ESKOLA ARRAKASTA ARDATZ IZANGO DITUEN EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA BULTZATZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
1.1.-Ekintza Plana indarrean dagoen bitartean, banakako hezkuntza-eredu eraginkorrak identifikatzea, gure hezkuntza-sistemara egokitzea, eskola-taldeetan era kontrolatuan proban jar daitezen proposatzea eta emaitzak zabaltzea sisteman era orokorrean ezarri.	Irakatsi eta ikasteko eredu pertsonalizatuak identifikatu dira.	Bisiten eta dokumentazioaren bidez, ikuspuntu inklusibotik hezkuntza pertsonalizatua egindako hainbat esperientzia baliagarriekin harremanetan jarri, aztertu eta gure testuingurura egokitu.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	09/01/09	09/12/31
	Aztertu eta gure testuingurura egokitu dira.				
	Hezkuntza-maila desberdinetako ikastetxeei proposatu zaizkie proba egin dezaten.	Berritzeguneek, ikuspuntu inklusibotik hezkuntza pertsonalizatuko eredu horietakoren bat eta Klaustroek proposatutako beste batzuk proban jartzeko aukera aztertzen ari diren LH eta DBHko ikastetxeak hautatu.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	10/01/01	10/06/30
	Hezkuntza-ikerketan aditua den erakundeak zuzenduriko saiakera-diseinu bat egin da	Ikuspuntu inklusibotik hezkuntza pertsonalizatuko programarako hautatutako ikastetxeetan egingo den ezarpenaren saiakera- eta segimendu-diseinua egin	ISEI-IVEI	10/9/01	10/12/20
	Ondorio operatiboak atera dira sistemara hedatu ahal izateko	Txosten bat egin ondorio eta gomendioekin	ISEI-IVEI	11/09/01	11/12/20
	Prestakuntza-, hedapen- eta laguntza-sistema diseinatu da sistema orokorrean	Esperientziak hedatzeko, prestakuntzarako eta ezarpena orokortzeko prozesuetan laguntza-gainbegiraketarako sistema diseinatu	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	12/01/01	15/06/30

1Helburua: PERTSONA BAKOITZAREN GAITASUNEN GARAPENA ETA IKASLE GUZTIEN ESKOLA ARRAKASTA ARDATZ IZANGO DITUEN EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA BULTZATZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
1.2.- Plan hau ezartzeko muga hirugarren urtea izatea, akademia-arautegia malgutzeko lege-aukerak aztertzea ikasle bakoitzaren premia eta eskuratzeko-eritmoen arabera, oinarritzko gaitasunen garapenean aurrera pausoak eman ahal izateko. Lagarren urtetik aurrera orokortuko litzateke	Ikasturtearen sustapen, ebaluazio, taldekatze eta abarrekin zerikusia duen eta indarrean dagoen arautegi guztia gainbegiratu da, eta akademia-arautegia malgutzeko aukeren inguruko txostena egin da.	Ikuspuntu inklusibo batetik, ikasturtearen sustapen, ebaluazio, taldekatze eta abarren inguruko akademia-arauak malgutzeko aukera eskaintzen duten arautegiaren aukeren inguruko txostena egin.	Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Hezkuntza Antolamendua) Ikuskaritza Nagusia	09/09/01	10/12/20
	Arautegian aldaketak txertatu dira, ikuspuntu inklusibotik ikasle guztien premia errealekara egokitzeko aukera eskainiko duen malgutasun handiagoa lortzeko	Akademia-malgutasunaren txostenaren arabera, arautegi guztia berraztertu guztientzako hezkuntza inklusiboaren ikuspuntutik.	Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Hezkuntza Antolamendua)	10/09/01	12/06/30
1.3.-Plan hau ezartzen denetik bigarren eta hirugarren urtean, gaitasun handiko ikasleak lagunduko dituzten programa pertsonalizatuak eguneratu eta ezartzea. Horrela, beren garapen pertsonalean eta sozialean aurrera pausoak emango dituzte beren gizarteratze eta doitze pertsonalerako funtsezkoak diren aldeak galdu gabe	Ikuspuntu inklusibo batetik, gaitasun handiko ikasleak lagunduko dituzten programak diseinatu dira	Gaitasun handiko ikasleen berriazko premiei erantzuteko orain arte garatu diren jardueren berrikuspena, indargune eta ahulguneak identifikatu eta ikuspuntu pertsonalizatutik eta eskola inklusiboaren ikuspuntutik planteamendu bat egin	Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	10/01/01	11/06/30
	Gaitasun handiko ikasleak laguntzeko programak era orokorrean ezarri dira	Sisteman, ikuspuntu inklusibotik, laguntza eta hezkuntza pertsonalizatuko prozesura ezarri	Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (HB)	11/09/01	12/06/30
1.4.-Bigarren urtean zehar, dauden programak ebaluatzea eta hirugarrenetik aurrera, ikasteko	Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren barruan dauden programen	Hainbat arrazoiengatik ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei bideratutako hainbat	Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (HB / Helduentzako osabidezko	10/09/01	11/06/30

1Helburua: PERTSONA BAKOITZAREN GAITASUNEN GARAPENA ETA IKASLE GUZTIEN ESKOLA ARRAKASTA ARDATZ IZANGO DITUEN EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA BULTZATZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
aparteko zailtasunak dituzten ikasleentzat programa pertsonalizatu berriak ezartzea, beren aukerak indartu eta eskola-arrakastarantzko bidean laguntzeko, banakako eta taldeko laguntza-neurriak ezarriz, testuinguru inklusiboetan	ebaluazioak egin dira ikuspuntu inklusibotik	programa ebaluatu: HEI, HBEHP, Dibertsifikazioa Curric., Zereginen Ikaskuntza, Osagarria, etab.	okupazio-hezkuntza) Ikuskaritza Nagusia		
	Egindako ebaluazioaren harira, hobekuntza-ekintzak ezarri, batzuk baztertu eta ikuspuntu inklusibotik ekintzarako programa pertsonalizatuei ekiteko programa berriak sortu dira	Dauden programak berriz diseinatu ebaluazioaren arabera eta programa berriak sortzeko aukera baloratu	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB Helduentzako osabidezko okupazio-hezkuntza), Berrikuntza Pedagogikoa, Berritzegune Nagusia	11/09/01	12/06/30
	Ikasteko aparteko zailtasunak dituzten ikasleei erantzun hobe emateko diseinatutako programak ezarri dira	Ikuspegi inklusibo eta kultura artekotik eskola-arrakastara zuzenduriko ereduak garatu, ikasle immigranteekin, ikasteko aparteko zailtasunak dituztenekin eta bere historia pertsonala, soziala edo eskolakoaren ondorioz oztopoak dituztenekin lotutako ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzeari begira.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	11/09/01	13/06/30
	Minusbaliotasuna duten ikasleentzat hezkuntza-inklusioko programak proposatu dira, kontuan hartuz garapen pertsonal eta sozialaren dimentsioak, oztopoak gainditzea eta	Ikuspegi inklusibo eta kultura artekotik eskola-arrakastara zuzenduriko ereduak garatu, minusbaliotasuna duten ikasleekin lotutako ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzeari	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	11/09/01	13/06/30

1 Helburua: PERTSONA BAKOITZAREN GAITASUNEN GARAPENA ETA IKASLE GUZTIEN ESKOLA ARRAKASTA ARDATZ IZANGO DITUEN EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA BULTZATZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
	ikaskuntza eta partaidetza soziala.	begira.			

2

CURRICULUMAREN GARAPENA ETA ZEHAZPENA IKASTETXE ETA IKASGELETAN IKASLE GUZTIEN GAITASUNAK SUSTATZEAN ETA IKASLE BAKOITZAREN ESKOLA ARRAKASTAN OINARRITZEKO AUKERA ESKAINTZEA.

Curriculum egituratu eta erakusterakoan, ikasle guztiek eskuragarri izateko moduan egin behar da eta, berez inklusiboa izan behar duen ikasketa-ereduan oinarritu behar da, ikasketa-estilo desberdinetara egokituz eta gaitasunen garapena eta ikasleentzat esanguratsuak diren ezagutzak eskuratzea azpimarratuz.

Euskal curriculum berriak aurre egin beharreko gaitasun-ereduak eta oinarritzko gaitasunen markoak zenbait ikasle, komunitate, hizkuntza- eta etnia-talde edo talde berezi batzuen beharrei erantzuteko malgutasun nahikoa lortu behar du.

Oinarritzko Gaitasunek curriculum ikastetxe bakoitzak maila anitzeko ikuspuntutik diseinatzeko aukera eskaini behar dute. Curriculumak gaitasun-maila desberdinak dituzten ikasleek eskura ditzaketen oinarritzko mailak jaso behar ditu, ekitatea eta hezkuntza-inklusihoa bermatuz. Curriculumarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta garatzearen aurrerabidea guztiek aurrerapenak egin eta arrakastak eskuratzeko moduan administratu eta ebaluatu behar da. Curriculum-proiektuen diseinuan ikuspuntu inklusiboa jaso behar da.

Curriculum formalak, gutxienez, bi asmo izan behar ditu: gure komunitateak bere haur eta gazteek eskuratzea nahi duen ezagutza, gaitasun eta balioak eta kalitatezko hezkuntza ematea, bai sortzen duen parte-hartzearen maila bai eta lortzen dituen emaitzak oinarri hartuta. Baina, batez ere, curriculumak ikasle guztiekin maila berean lortu behar ditu helburu horiek. Beraz, zorrotza izan behar du, baina baita nahikoa malgua ezaugarri oso desberdinak dituzten ikasleei erantzun ahal izateko.

HELMUGAK

2.1.-Indarrean dagoen lehen bi ikasturteetan, ikasleen ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gaindituko dituen eskola baten testuinguruan, hezkuntzan berariazko laguntza-premiak dituzten ikasleei erantzuteko esku-hartzeak ordenatuko dituzten Ekintza Planen arautegia, tresnak eta exenplifikazioak.

2.2.-Bigarren ikasturtea amaitzean, ikasgelako dinamikan ikasle guztien parte-hartze inklusiboa erraztuko duen maila anitzeko curriculumaren gaineko prestakuntza-ekintzak eta aholkularitza egin, hedatu eta sustatuko dira.

2.3.- Bigarren ikasturtetik aurrera, curriculumak malgutzeko estrategiak ezarriko dira, bai curriculumaren garapenean, bai ikasleen bizitzarako oinarritzko gaitasun eta trebetasunak eskuratzeko, eta ikaskuntzen ebaluazioan.

2. Helburua: CURRICULUMAREN GARAPEN ETA ZEHAZPENAK IKASTETXE ETA IKASGELETAN IKASLE GUZTIEN GAITASUNEN SUSTAPENEAN ETA IKASLE BAKOITZAREN ESKOLA ARRAKASTAN OINARRITZEKO AUKERA ESKAINTZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
2.1.-. Indarrean dagoen lehen bi ikasturteetan, ikasleen ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gaindituko dituen eskola baten testuinguruan, hezkuntzan berriazko laguntza-premiak dituzten ikasleei erantzuteko esku-hartzeak ordenatuko dituzten Ekintza Planen arautegia, tresnak eta exenplifikazioak.	Ekintza Planen gaineko arautegia egin da	Hezkuntzan berriazko laguntza-premiak dituzten ikasleekin esku-hartzeko Ekintza Planak arautuko dituen arautegia egin, kontuan hartuz hezkuntza-maila bakoitzaren eta eskola inklusiboaren ezaugarriak	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB eta Berritzegune Nagusia)	09/09/01	09/12/31
	Informazio-prestakuntzako hiru saio egin dira irakaskuntza laguntzeko Zerbitzuekin: Berritzeguneak, Itsuentzako baliabide-zentroak (CRI), IIHIIak, ISEI-IVEI eta Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretarako Zentroak.		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB eta Berritzegune Nagusia)	10/04/01	10/07/15
	Ikastetxe guztietan hedapena egin da gutxienez bi lan-saioarekin.		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB eta Berritzegune Nagusia)	10/09/01	11/06/30
	Eskola inklusiboaren inguruko Kode etikoari buruzko dokumentu bat egongo da	Berritzeguneetako eta Berritzegune Nagusiko aholkularitza-taldee, dagozkien Ekintza Planen aurretiko ebaluaziorako, diseinurako eta ebaluaziorako tresnak egiteko eskatu	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB eta Berritzegune Nagusia)	10/09/01	11/06/30

2. Helburua: CURRICULUMAREN GARAPEN ETA ZEHAZPENAK IKASTETXE ETA IKASGELETAN IKASLE GUZTIEN GAITASUNEN SUSTAPENEAN ETA IKASLE BAKOITZAREN ESKOLA ARRAKASTAN OINARRITZEKO AUKERA ESKAINTZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
2.2.-Bigarren ikasturtea amaitzean, ikasgelako dinamikan ikasle guztien parte-hartze inklusiboa erraztuko duen maila anitzeko curriculumaren gaineko prestakuntza-ekintzak eta aholkularitza egin, hedatu eta sustatuko dira.	Hezkuntza-sisteman sortzen ari diren premia berrien inguruko txostena egin da	Esparru desberdinetako espezialistei (sailak, programak...) curriculumaren azterketa egitea eskatu eskolatzeko inklusibo egokirako Maila anitzeko Curriculum Proiektuak garatzeko jarraibideak ezarri	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia) ISEI-IVEI	09/09/09	10/06/30
	Premia berrien inguruko informazioa bizirik mantentzeko aukera eskaintzen duen prozedura sistematizatu da.		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia) ISEI-IVEI	10/09/01	11/06/30
2.3.- Bigarren ikasturtetik aurrera, curriculumaren malgutzeko estrategiak ezarriko dira, bai curriculumaren garapenean, bai ikasleen bizitzarako oinarritzko gaitasun eta trebetasunak eskuratzean, eta ikaskuntzen ebaluazioan.	Ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuak ikuspuntu inklusibora egokitu dira bigarren hezkuntzako ikastetxeen % 25ean.	IHP eta ICParentzat hezkuntza-adostasunak lehenetsi, ikastetxearen autonomia oinarri hartuta.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia, Berrikuntza Pedagogikoa)	10/09/01	12/06/30
	Ebaluazio- eta akreditazio-sistema martxan jarri da, ikastetxeetako ikasle guztientzat	Gaitasunetan oinarritutako ebaluazio-modu malguak erabili, hezkuntzan berriazko laguntza-premiak dituzten ikasle jakin batzuei, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, beren hezkuntza-prozesua edo prestakuntza profesionala jarraitzeko egiaztagiriren bat eduki dezan	Ikuskaritza Nagusia	11/09/01	

3

HEZKUNTZA-PROZESUAN EMATEN DIREN TRANTSIZIO DESBERDINAK, GUZTIEN ARRAKASTARAKO AUKERAK ESKAINIKO DITUEN HEZKUNTZA IKUSPUNTU INKLUSIBO ETA SOZIAL BATETIK GARA DAITEZEN SUSTATZEA.

Kalitatezko hezkuntza-sistema batek ikasle guztientzat hezkuntza-etapa desberdinen arteko trantsizio arina bermatu behar du. Funtsezko etapa horiek honako hauek dira: etxetik eskolarako trantsizioa, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa, Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara, eta hortik Derrigorrezko ondokotik Goi-mailako Heziketara, bai eta eskolaren, bizitza osoan zeharreko ikasketaren eta lan-munduaren arteko trantsizioa ere; azken kasu horretan, garrantzi handia du helduen hezkuntzak (HHE).

Lehen trantsizioa etxearen eta eskolaren artean ematen da. Etapa horretan trantsizio arina egin ahal izateko faktoreak antzemate eta esku-hartze goiztiarra, familiaren parte-hartzea eta instituzio desberdinen arteko lankidetzak izango dira.

Derrigorrezko hezkuntzan zehar ematen diren trantsizioetarako egiturazko oztupoak kendu behar dira, hala nola, ebaluazio-prozedura zurrinak eta beharrezko ez diren ikasturteen errepikapenak.

Derrigorrezko hezkuntzatik derrigorrezko ondokora edo eskolaz ondorengora egiten den trantsizioak, baliteke, goi-mailako hezkuntzarako sarbideak zabaltzeko estrategiak, lanera bideratutako curriculum arduratiak erabiltzea, eta enpresan laguntza eta ikasketa duen enplegua behar izatea. Zentzu horretan, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetan, HLPP egokitueta jasotzen diren helduen bizitzarako trantsizio-egiturak baloratu behar dira bereziki. Programa egokitu horien ikuspuntu inklusiboak hasierako lanbide-heziketaren sarearen parte izatera bultzatzen ditu eta hala direnez, bere lanbide-prestakuntzako prozesuan eskuratutako gaitasunen ikuskapen-sistema izan behar dute. Halaber, bai ikastetxe arruntetan eta baita berezietan dauden Gela Egonkorretan edo Pertsonaren Autonomiarako Geletan eskolatutako ikasleentzat helduen bizitzara egin beharreko trantsizioa aurreikustea ere beharrezkoa da.

HELMUGAK

3.1. Plana indarrean dagoen bitartean, Laguntza Goiztiarreko eredu bat aurkeztuko da, arautegia egin eta EAEn aipatu Eredua ezarriko da.

3.2. Plana indarrean dagoen urteetan, ikasleen hezkuntza-etapa desberdinen arteko trantsizio-prozesuak eta beste baliabide batzuk hobetuko dira eta lan- eta gizarte-mundurako trantsizioan eskudunak diren beste instantzia batzuekin lankidetzahitzarmenak ezarriko dira.

3.3. Lehen ikasturtean, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak eta HLPP egokituak bere dimentsio guztietan garatuko dira.

3.4. Plan hau indarrean dagoen bitartean, Gela Egonkorretan edo Pertsonaren Autonomiarako Geletan eskolatutako ikasleentzat berariazko curriculum-proposamenak garatuko dira, Bizi Kalitatearen dimentsio guztiak kontutan hartuz.

3. Helburua: HEZKUNTZA-PROZESUAN EMATEN DIREN TRANTSIZIO DESBERDINAK, GUZTIEN ARRAKASTARAKO AUKERAK ESKAINIKO DITUEN HEZKUNTZA- IKUSPUNTU INKLUSIBO ETA SOZIAL BATETIK GARA DAITEZEN SUSTATZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
3.1. Plana indarrean dagoen bitartean, Laguntza Goiztiarreko eredu bat aurkeztuko da, arautegia egin eta EAEn aipatu Eredua ezarriko da.	LGko I. Plana egin da.	Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Foru Aldundiekin batera, beren premia berezien arabera, garapenaren nahasteak dituen edo izateko arriskua duten haurren laguntza goiztiarreko Plana ezarri.	Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (HB)	09/09/01	10/06/30
	Eskola-markoan Laguntza Goiztiarrari buruzko arautegia egin da	Aipatu ereduaren proposatutako LGean egin beharreko ekintzei lege-estaldura emango dien arautegia egin	Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (HB eta Akademia Antolamendua)	09/09/01	11/06/30
	EAEn Laguntza Goiztiarreko Ereduaren hedapen-plana landu eta egin da	LGeko plana Berritzeguneetako laguntza-zerbitzuei eta irakasleei banatu	Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	10/09/01	12/06/30
	Indarrean dagoen arautegia berrikusi da eta LGarekin lotutako programa jaso da.	HPBen programak berriz planteatu eta LG jasoko duen programa txertatu	Hezkuntza Sailburuordetza: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza Hezkuntza Administrazioako Sailburuordetza	10/09/01	
	GARATUren bidez prestakuntza-jarduerak, ikastetxeetan Prestakuntza eta Berrikuntza-proiektuak, instituzio arteko Jardunaldiak, tokiko mintegiak diseinatu dira.	LGaren inguruko prestakuntza-ekintzak planifikatu HH/LH/aholkulari irakasleei, PTak eta logopeda-ALEak, Fisioak eta TO.	Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Irakasleen Hobekuntza, Berritzegune Nagusia: HPB aholkularitza)	10/09/01	
	Hezkuntza-etapa bakoitzeko trantsiziorako eta eskolatzemodalitateko protokoloak egin	Hezkuntza-etapa eta eskolatzemodalitate desberdinetan ikasleen trantsizio egokia	Berritzegune Nagusia: HPB aholkularitza	09/09/01	11/06/30

3. Helburua: HEZKUNTZA-PROZESUAN EMATEN DIREN TRANTSIZIO DESBERDINAK, GUZTIEN ARRAKASTARAKO AUKERAK ESKAINIKO DITUEN HEZKUNTZA- IKUSPUNTU INKLUSIBO ETA SOZIAL BATETIK GARA DAITEZEN SUSTATZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
	dira	bermatuko duten protokoloak diseinatu	eta lurraldekoak		
	Lankidetzaren protokoloak eta trantsizio-planak ezarri dira	Eskola-, lan- eta gizarte-mundurako trantsizioan eskumena duten beste instantzia batzuekin lankidetzaren protokoloak ezarri, ikasleen uneko momentuan eta etorkizun hurbilean esku hartzen duten eragile guztiak inplikaturik egongo diren banakako trantsizio-planak ezarri	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia: HPB aholkularitza)	10/09/01	11/06/30
3.2. Plana indarrean dagoen urteetan, ikasleen hezkuntza-etapa desberdinen arteko trantsizio-prozesuak eta beste baliabide batzuk hobetuko dira eta lan- eta gizarte-mundurako trantsizioan eskudunak diren beste instantzia batzuekin lankidetzaren hitzarmenak ezarriko dira.	Lan-saioak eginak	Irakasleekin lan-saioak planifikatu tresna horiek erabiltzera eta beren eza-penera ohitu daitezkeen.	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Irakasleen Hobekuntza, Berritzegune Nagusia)	10/09/01	15/06/30

3. Helburua: HEZKUNTZA-PROZESUAN EMATEN DIREN TRANTSIZIO DESBERDINAK, GUZTIEN ARRAKASTARAKO AUKERAK ESKAINIKO DITUEN HEZKUNTZA- IKUSPUNTU INKLUSIBO ETA SOZIAL BATETIK GARA DAITEZEN SUSTATZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
3.3. Lehen ikasturtean, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak eta HLPP egokituak bere dimentsio guztietan garatuko dira.	HLPPen curriculumak egokitu dira	Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen curriculumak berrikusi, lanbide bat garatzeko gaitasun-garapenaren eta trebakuntzatik, gizarteratzearen beharrezko elementu guztiak kontutan hartuz	Hezkuntza Sailburuordetza (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza) Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza (LH Zuzendaritza)	09/09/01	10/06/30
	HLPP egokituen curriculumak egokitu dira	Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa Egokituen curriculumak berrikusi egungo errealitatera moldatuz eta merkatu-eskaintzaren arabera.	Hezkuntza Sailburuordetza (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaria – HB eta Berritzegune Nagusia) Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza (LH Zuzendaritza)	10/09/01	11/06/30
3.4. Plan hau indarrean dagoen bitartean, trantsizio desberdinak erraztera zuzenduriko ekintzak jasoko dituzten eskolatz-modalitate desberdinetan	Zonetan prestakuntza-saioak garatu dira era sistematikoan	Kaltetuen dauden Buru Minusbalotasuneko pertsonen Bizi Kalitatearen dimentsioak ebaluatzeari begirako proiektuak garatu,	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaria (HB eta Berritzegune Nagusia)	10/09/01	15/06/30

3. Helburua: HEZKUNTZA-PROZESUAN EMATEN DIREN TRANTSIZIO DESBERDINAK, GUZTIEN ARRAKASTARAKO AUKERAK ESKAINIKO DITUEN HEZKUNTZA- IKUSPUNTU INKLUSIBO ETA SOZIAL BATETIK GARA DAITEZEN SUSTATZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
berariazko curriculum- proposamenak garatuko dira		personaren garapen- ahalmenaren eta gaitasunen alde apustu eginez.			
	Gela Egonkorretarako Curriculum Proiektuen jardunbide egokien exenplifikazioak egin dira	Gela Egonkorretan eta HBko Ikastetxe Berezietan curriculum- proiektuak landu eta garatu, Bizi Kalitateko dimentsioak txertatuz	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	10/09/01	15/06/30
	Ikastetxe guztiek Gela Egonkorretarako Curriculum Proiektuak dituzte.	Ikastetxeetan aipatu curriculum- proiektua ezarri ikuspuntu inklusibotik.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaria (HB eta Berritzegune Nagusia)	10/09/01	

4

BERRIKUNTZA-PROIEKTU GLOBALAK GARATZEA ESKOLETAN, INKLUSIO- ETA ARRAKASTA-HEZKUNTZAREN ALDEKO ALDAKETA-GUNE GISA.

Inklusioari buruzko politiken garapena, laguntza-sistemak, curriculum- eta ebaluazio-modu egokiak hezkuntza inklusiborantz pausoak emateko mekanismo garrantzitsuak dira. Inklusioarekin konpromiso formala duten eta eskolaren testuinguruan praktika inklusiboa jorratzen duten adibide asko daude. Kasu horietan, ikastetxeak garapen inklusiboaren benetako motorrak izan daitezke sistemaren osotasunarentzat.

Eskola inklusibo baten aldeko ekimenen ezarpen eraginkorrerako funtsezko baldintzak honako hauek lirateke:

- Berrikuntzarako aukera eskaintzen duten eskola-testuinguruen alde egin, Hezkuntza Administrazioetik proiektu inklusiboak bultzatuz.
- Eskolen ekimenei laguntza praktikoa eskaini Berritzeguneen, Hezkuntzako Ikusatzaitzaren, Unibertsitatearen eta hainbat elkarteren bidez.
- Proiektuaren kudeaketan ari diren ikastetxeen parte-hartzea.
- Proiektuan garatutako esperientziak gainerako ikastetxeei eta komunitateari hedatzeko mekanismoak jarri.

Guztientzako Hezkuntzaren alde aurrera egiteko esfortzuak Hezkuntza Administrazioari aldaketa sistemikoak ezartzeko aukera eskaintzen diote. Kasu horietan, arazoa ez da soilik eskoletan sortzen diren ekimenen gainean eraikitzea, gizartean sortu berri diren premiei erantzuteko Hezkuntza Administrazioak sustatutako ekimenekin eskolek erabateko konpromisoa har dezatela bermatzea ere kontutan hartu behar baita.

HELMUGAK

4.1. Prozesu osoan zehar, ikuspuntu inklusibotik esku hartzeko Proiektu Globalak egitea

4.2. Plan hau indarrean dagoen bitartean, Berritzeguneetako aholkulari guztien prestakuntza bermatzea kulturen, politiken eta eskolen praktiken ebaluazio eta diagnostikorako tresna desberdinen aplikazioan eta horiek beren inguruetako ikastetxeetan erabil ditzaten sustatzea.

4.3.-Inklusiorako jardunbide egokiak sustatzea, praktika horien sustapen, hedapen eta elkartrukearen bidez.

4.4.- Esperientzien garapena bultzatzea eta ikasgelako eta ikastetxeko gizarte-antolamendua aldatzeko eredu praktikoa ematea, inklusio-esparrua osatuz, ikasle guztien, irakasleen eta familiartekoen ikaskuntza eta partaidetzarekin.

4.5.- Bereziki plan hau indarrean dagoen lehen bi urteetan, zuzendaritza-taldeek lidergoa sustatu proiektu inklusiboaren garapenera daramaten prozesuetan, batez ere, hezkuntza-komunitateak hezkuntzan berariazko laguntza-premiak dituzten ikasleei eskaini behar dien erantzunaren kalitatea bermatuko dutenak.

4. Helburua: BERRIKUNTZA-PROIEKTU GLOBALAK GARATZEA ESKOLETAN, INKLUSIO- ETA ARRAKASTA-HEZKUNTZAREN ALDEKO ALDAKETA-GUNE GISA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
4.1. Prozesu osoan zehar, ikuspuntu inklusibotik esku hartzeko Proiektu Globalak egitea	Ikuspuntu inklusibotik ikastetxeetan esku hartzeko proiektu globalak lantzeko urteko deialdiak egin dira.	Urtero, ikuspuntu inklusibotik Derrigorrezko Hezkuntzaren maila guztietan Ikastetxeko Proiektu Globalak sustatzeko deialdi bat egin, aipatu proiektuak ezartzeko beharrezko diren laguntza pertsonalak, ekonomikoak eta prestakuntzakoak emanez	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	1/9/09	31/12/15
4.2. Plan hau indarrean dagoen bitartean, Berritzeguneetako aholkulari guztien prestakuntza bermatzea kulturen, politiken eta eskolen praktiken ebaluazio eta diagnostikorako tresna desberdinen aplikazioan eta horiek beren inguruetako ikastetxeetan erabil ditzaten sustatzea.	Era sistematikoan antolatu da eta eskola-maila bakoitzean mintegiak eta prestakuntza-saioak daude	Hezkuntza inklusiboaren ebaluazio eta hobekuntzarako hainbat tresna aplikatzeko mintegiak eta prestakuntza- eta ikuskaritza-saioak garatu (kulturen, politiken eta eskolen praktiken diagnostikoa)	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	1/09/09	30/6/15
4.3.-Inklusiorako jardunbide egokiak sustatzea, praktika horien sustapen, hedapen eta elkartrukearen bidez.	Saioak eginak eta ikastetxeen parte-hartze maila	Berritzeguneetatik ikastetxeetan inklusiorako jardunbide egokien komunikazio eta elkartrukeko saioak antolatu	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	1/09/09	
	Dokumentu-sortak egin dira jardunbide inklusibo egokien inguruan eta webgunean zintzilikatu dira	Berritzeguneetako web-orrietan jardunbide inklusibo egokien esperientzia dokumentatua hedatu (testuak, bideoak, adibide grafikoak...).	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	1/09/09	

4. Helburua: BERRIKUNTZA-PROIEKTU GLOBALAK GARATZEA ESKOLETAN, INKLUSIO- ETA ARRAKASTA-HEZKUNTZAREN ALDEKO ALDAKETA-GUNE GISA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
4.4.- Esperientzien garapena bultzatzea eta ikasgelako eta ikastetxeko gizarte-antolamendua aldatzeko eredu praktikoak ematea, inklusio-esparrua osatuz, ikasle guztien, irakasleen eta familiartekoen ikaskuntza eta partaidetzarekin.	Jardunbide inklusibo egokiei buruzko dokumentuak webgunean zintzilikatuak	Ikasgelako eta ikastetxeko gizarte-antolamendurako eredu praktikoak landu eta hedatu, inklusioa eta ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetza biltzeko dituen esparrua osatuz.	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	09/09/01	15/06/30
	Proposamenen aplikazioa	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren antolamendua berrikusi, lan-denborak komunean eta irakasleen arteko beharrezko koordinazioa bermatuz, ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzen laguntzeko helburu duten proposamenak diseinatu eta ezartzeko	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia, Akademia Antolamendua) Ikuskaritza Nagusia	09/09/01	15/06/30
4.5.- Bereziki plan hau indarrean dagoen lehen bi urteetan, zuzendaritza-taldean prestakuntza eta lidergoa sustatu proiektu inklusiboaren garapenera daramaten prozesuetan, batez ere, hezkuntza-komunitateak hezkuntzan berriazko laguntza-premiak dituzten ikasleei eskaini behar dien erantzunaren kalitatea bermatuko dutenak.	Lan-saioak zuzendaritza-taldeekin	Eremu bakoitzeko zuzendaritza-taldeekin lan-saioak garatu, hezkuntza-komunitateak hezkuntzan berriazko laguntza-premiak dituzten ikasleei eskaini behar dien erantzun inklusiboan beren lidergoa bultzatuz.	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	09/09/01	15/06/30

5

HEZKUNTZA SISTEMAKO MAILA DESBERDINEN ANTOLAMENDUA SUSTATZEA, LAGUNTZAK ARTIKULATUZ, BERE OSOTASUNEAN, IKASLEENTZAKO INKLUSIO- ETA ARRAKASTA-SISTEMAREN ERAIKUNTZARANTZ DOAN BIDEA EGIN DEZAN.

Laguntzak ikasleen ikasketa errazten duen guztia hartzen du bere barnean. Laguntza-modu garrantzitsuena ikastetxe bakoitzean dauden baliabideen bidez ematen dena da; ikasle batzuek beste batzuei ematen dieten laguntza, beste irakasle batzuk laguntzen dituzten irakasleak, beren haurren heziketan parte hartzen duten familiak eta ikastetxeak laguntzen dituzten komunitateak. Laguntzen eraginkortasun-maila, zentzu horretan, oinarritzakoa da edozein eratako ikaslek ikasi eta parte hartu dezakeen ikastetxeen garapenean.

Egoera askotan, beharrezkoa izango da irakasle espezialisten, pedagogia terapeutikoko irakasleen eta Berritzeguneetako eta irakaskuntza laguntzeko beste zentro batzuetako langile espezializatuen, beste sektore batzuetako profesionalen eta abarren laguntza. Laguntza-modu horiek egoten direnean, era egokian artikulatuak daudela eta ikuspuntu inklusiboaren garapen eraginkorra laguntzen dutela bermatu behar da. Horrek, eskola arruntaren testuinguruan laguntza eman dezaten birbideratzea ekar dezake.

Laguntza hori modu integralean eman behar da. Zerbitzu eta instituzio desberdinek batera lan egin behar dute eta ez isolatuta. Hezkuntza inklusiboak beren komunitateei zerbitzuak eskaintzen dizkieten eskola arruntetan, ikasle guztiek arrakasta izateko aukerak ematea esan nahi du.

HELMUGAK

5.1. Plana indarrean dagoen bitartean, irakasle orientatzaile, aholkulari, pedagogia terapeutiko, beste langile espezializatu eta hezkuntza-laguntzan langile espezialisten esku-hartze inklusiboaren ikuspuntua ezartzea, horrela, nola HPB dituzten ikasleei hala gainerako ikasleei laguntza eman diezaieten, ikasgelako irakasleekin batera talde osatuz eta praktika inklusiboak garatuz.

5.2. Planaren bigarren urtean, Berritzeguneetako aholkularien esku-hartzea birplanteatu, eskola inklusiboaren ardatzaren gainean egituratuko den eredia ezarri.

5.3. Hezkuntza Premia Berezien Aholkularien esku-hartzea, bi urtetan zehar Berritzeguneen esku-hartze orokorraren markoan, doitu, tokiko laguntza-taldearen barruan esku-hartze profesionalaren espezifikotasuna era egokian jasoko duen eredia garatuz, bai eta beren espezialitateak ikasleen premia berrietara moldatuz.

5.4.-Plana amaitzen denean, eskolan eta komunitatean txertatzeko zailtasunak dituzten pertsonen alde lan egiten duten gainerako administrazio eta gizarteko erakunde desberdinen arteko itunak sortu dira; horrela beren zerbitzu eta esku-hartzeak era koordinatuan bultzatu beharko dira.

5. Helburua: HEZKUNTZA SISTEMAKO MAILA DESBERDINEN ANTOLAMENDUA SUSTATZEA, LAGUNTZAK ARTIKULATUZ, BERE OSOTASUNEAN, IKASLEENTZAKO INKLUSIO- ETA ARRAKASTA-SISTEMAREN ERAIKUNTZARANTZ DOAN BIDEA EGIN DEZAN.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
5.1. Plana indarrean dagoen bitartean, irakasle orientatzaile, aholkulari, pedagogia terapeutikoko, beste langile espezializatu eta hezkuntza-laguntzan langile espezialisten esku-hartze inklusiboaren ikuspuntua ezartzea, horrela, nola HPB dituzten ikasleei hala gainerako ikasleei laguntza eman diezaieten, ikasgelako irakasleekin batera talde osatuz eta praktika inklusiboak garatuz.	Irakaskuntza laguntzeko Zerbitzuekin lau informazio-prestakuntza saio egin dira: Berritzeguneak, Itsuentzako baliabide-zentroak (CRI), IIHIIak, ISEI-IVEI eta Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretarako Zentroak	Irakasle orientatzaile, aholkulari, pedagogia terapeutikoko, hezkuntza-laguntzan langile espezializatu eta espezialisten esku-hartze inklusiboari begirako jarraibideak landu, ikastetxeetan esku-hartze inklusiboko lankidetzat-taldeak sortuz.	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia eta HB)	2010/04/01	2010/06/20
	Ikastetxe guztietan hedapena egin da gutxienez bi lan-saiorekin.		Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia eta HB)	2010/09/01	2011/06/20
	Bosgarren urtean zehar, esku-hartze inklusiboaren ezarpena funts publikoekin mantendutako ikastetxeen % 80ra heldu da.			2014/09/01	2015/06/20
5.2. Planaren bigarren urtean, Berritzeguneetako aholkularien esku-hartzea birplanteatu, eskola inklusiboaren ardatzaren gainean egituratuko den eredua ezarri.	Hezkuntza-sisteman sortzen ari diren aholkularitza-premia berrien inguruko txostena egin da	Berritzeguneen eta beren jarduera eremuen antolaketa-eredua berrikusi eta eguneratu, sistema inklusiboan laguntzen antolaketa bultzatzea bilatzeko.	ISEI-IVEI	10/09/01	11/06/30
	Ikastetxeetan aholkularitza inklusiboa baloratzeko aukera eskaintzen duen prozedura sistematizatu da.		Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia eta HB)		

5. Helburua: HEZKUNTZA SISTEMAKO MAILA DESBERDINEN ANTOLAMENDUA SUSTATZEA, LAGUNTZAK ARTIKULATUZ, BERE OSOTASUNEAN, IKASLEENTZAKO INKLUSIO- ETA ARRAKASTA-SISTEMAREN ERAIKUNTZARANTZ DOAN BIDEA EGIN DEZAN.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
5.3. Hezkuntza Premia Berezien Aholkularien esku-hartzea, bi urtetan zehar Berritzeguneen esku-hartze orokorraren markoan, doitu, tokiko laguntza-taldearen barruan esku-hartze profesionalaren espezifikotasuna era egokian jasoko duen eredia garatuz, bai eta beren espezialitateak ikasleen premia berrietara moldatuz.	Indarrean dagoen araudia errebasatu eta hezkuntza-inklusiorekin zerikusia duten puntu gatazkatsuak jasoko dituen txostena	Hezkuntza Premia Berezien aholkularien programen zereginak berrikusi eta eguneratu, beren dimentsio orokorrak eta ekarpen espezializatua, hezkuntza-sistema inklusiboan sortzen doazen premia berriekin uztartu ahal izateko	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia, HB)	09/09/01	11/06/30
	Martxan jarri dira doitze-prozesuak Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari dagozkion zerbitzuekin		Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza Ikuskaritza Nagusia	09/09/01	11/06/30
5.4.-Plana amaitzen denean, eskolan eta komunitatean txertatzeko zailtasunak dituzten pertsonen alde lan egiten duten Administrazio eta erakunde sozialetako ordezkariekin lan-taldea osatu da	Eskolan eta komunitatean txertatzeko zailtasunak dituzten pertsonen alde lan egiten duten Administrazio eta erakunde sozialetako ordezkariekin lan-taldea osatu da	Hezkuntzan berriazko laguntza-premiak dituzten ikasleei erantzuteko elkarlaneko eredurako eta bai eskolan bai komunitatean berriazko laguntza-premiak dituzten ikasleei laguntzen dieten sare desberdinen laguntza koordinatzeko ikerketa garatu eta jarraibideak ezarri.	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (HB eta Helduentzako osabidezko okupazio-hezkuntza)	09/09/01	15/06/30

5. Helburua: HEZKUNTZA SISTEMAKO MAILA DESBERDINEN ANTOLAMENDUA SUSTATZEA, LAGUNTZAK ARTIKULATUZ, BERE OSOTASUNEAN, IKASLEENTZAKO INKLUSIO- ETA ARRAKASTA-SISTEMAREN ERAIKUNTZARANTZ DOAN BIDEA EGIN DEZAN.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
	Hezkuntza- eta gizarte-inklusoia laguntzeko lankidetzak-aukeren inguruko txosten juridiko-administratiboa egin da.	Ikaskuntza Proiektuen eta Zerbitzu Solidarioen eta artapenean, laguntza pertsonalean, ikastetxean eta aisialdian berdinen arteko laguntza naturalen sareak sustatzen dituzten beste proiektu batzuen garapena sustatu, ikastetxetik berdinen arteko laguntza solidario inklusiboa eman ahal izateko.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berrikuntza Pedagogikoa eta Berritzegune Nagusia)	10/09/01	15/06/30
	Sail arteko eta erakunde sozialen segimendu-batzordearekin bilerak egin dira	Lankidetzak-protokoloa doitu eta eguneratu	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berrikuntza Pedagogikoa eta Berritzegune Nagusia)	11/09/01	15/06/30

6

FAMILIAK ETA KOMUNITATEAK HEZKUNTZA INKLUSIBOAN PARTE HAR DEZATEN BEHARTU ETA ERRAZTU.

Familia eta komunitateen parte-hartzea ezinbestekoa da guztientzako kalitatezko hezkuntza bermatzeko. Hezkuntza ez da soilik profesionalen lana.

Familia eta komunitateek parte-hartzeko eskubidea dute eta ekarpen ugari egin ditzakete; batez ere, profesionalek beren haurren inguruan ez duten ezagutza baitute haiek.

Familia eta komunitatearen parte-hartzearen garapena pausoz pauso eman beharreko prozesua da eta konfiantzan oinarritzen da. Parte-hartzea bultzatzeko esfortzuak egin behar dira, batez ere, bazterketa soziala duten taldeetan.

Alde horretatik, minusbaliotasuna duten pertsonen edo gizarte-bazterketaren arriskua duten kolektiboen gizarteratzearen alde lan egiten duten gizarte-erakundeek paper garrantzitsua dute.

Hezkuntza inklusiboaren helburua ez da soilik ikasleak eskola arruntetan hezteak, beren familia eta komunitateen barruan mantentzea ere baita. Are gehiago, Guztientzako Hezkuntzaren ikuspuntu zabalak, ikaskuntza kontzeptu holistiko gisa hartzen du, nola etxean eta komunitatean, hala ikastetxe eta beste ikasketa-zentroetan ematen den kontzeptu gisa. Familia eta komunitateen parte-hartzea funtsezkoa da. Gizarteratze-esparru desberdinen arteko hezkuntza-jarraitutasuna eta -koherentzia familien eta komunitateen parte-hartze aktiboaren beste gakoetako bat da.

HELMUGAK

6.1. Lehen ikasturtean, hezkuntza inklusiboaren prozesuan parte hartzen duten gizarteko hainbat talderen parte-hartzea jasotzeko kontsulta-sistema ezarri.

6.2. Plan hau garatzen den bitartean, eskolen eta ikasle guztien familien arteko elkartasuna lortu geroz eta inklusiboagoa izango den eskola eraikitzeak.

6.3. Familia, uneoro, informatua eduki, ikasleen aurrerapenen inguruan eta lankidetzamarkoaren barruan ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gaitzitezen inguruan.

6.4.- Familiekin egindako lehen elkarrizketatik, hizkuntza ulergarria erabili, familiek, errespetuz eta arduraz tratatzen zaiela senti dezaten eta komunikazio horretan beren ikuspuntu eta esperientzien berri eman dezaten.

6.5.-Plan hau indarrean dagoen bitartean, erakundeekin batera, familiei beren haurren heziketa-prozesuetan duten garrantziaren inguruko prestakuntza-sistemak garatzea.

6. Helburua: FAMILIAK ETA KOMUNITATEAK HEZKUNTZA INKLUSIBOAN PARTE HAR DEZATEN BEHARTU ETA ERRAZTU.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
6.1. Lehen ikasturtean, hezkuntza inklusiboaren prozesuan parte hartzen duten gizarteko hainbat talderen parte-hartzea jasotzeko kontsulta-sistema ezarri.	Ekintza-planari buruzko kontsultak eta informazio-bilketarako protokoloa egin da.	Ekintza Plan honen inguruko kontsultak eta informazio-bilketarako protokoloa ezarri, hezkuntzan berriazko laguntza-premiak dituzten kolektibo desberdinen erakunde ordezkariari begira.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB eta Helduentzako osabidezko okupazio-hezkuntza, Berritzegune Nagusia)	09/09/01	10/06/20
	Aplikatu, zuzendu eta emaitzak baloratu dira.		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB eta Helduentzako osabidezko okupazio-hezkuntza, Berritzegune Nagusia)	09/09/01	10/06/20
	Emaitzak kolektibo desberdinekin alderatu dira eta planaren balizko aldaketak mugatu dira.		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB eta Helduentzako osabidezko okupazio-hezkuntza, Berritzegune Nagusia)	09/09/01	10/06/20
6.2. Plan hau garatzen den bitartean, eskolen eta ikasle guztien familien arteko elkartasuna lortu geroz eta inklusiboagoa izango den eskola eraikitzeko.	Komunikazioko jardunbide egokien esperientzia-bilketa egin da.	Komunikaziorako jardunbide egokien sistemak ezarri familiei aukera inklusiboaren eta ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gaitzeko ikastetxe bakoitzak martxan jarri behar dituen ekimenen inguruan	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB eta Helduentzako osabidezko okupazio-hezkuntza, Berritzegune Nagusia)	10/09/01	12/06/30

6. Helburua: FAMILIAK ETA KOMUNITATEAK HEZKUNTZA INKLUSIBOAN PARTE HAR DEZATEN BEHARTU ETA ERRAZTU.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
	Ikastetxe desberdinetan esperientzia horiek hedatu, sustatu eta orokortu dira.	informatzeko.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB eta Helduentzako osabidezko okupazio-hezkuntza, Berritzegune Nagusia)	10/09/01	-----
6.3. Familia, uneoro, informatua eduki, ikasleen aurrerapenen inguruan eta lankidetzamarkoaren barruan ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzearen inguruan.	HPB dituzten ikasleen familiei informazio-protokoloak eta jarraibideak diseinatu eta erabili dira	Hezkuntzan laguntza-premia bereziak dituzten ikasleen familiei, aurrerapenen eta ikasle guztiak barne hartuko dituen eskola inklusiboagoa egiteko irakasle-taldearen ekimene berri era sistematikoan emateko protokoloak ezarri eta jarraibidez osatutako materialak landu.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB eta Helduentzako osabidezko okupazio-hezkuntza, Berritzegune Nagusia)	09/09/01	15/06/30
	Familiekin bilerak egin dira		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	10/01/01	10/03/30
6.4.- Familiekin egindako lehen elkarrizketatik, hizkuntza ulergarria erabili, familiek, errespetuz eta arduraz tratatzen zaiela senti dezaten eta komunikazio horretan beren ikuspuntu eta esperientzien berri eman dezaten.	Jardunbide egokien eskuliburuak egin da.	Komunikazioko Jardunbide Egokien eskuliburuak egin, familientzat eskuragarri, berariazko laguntza-premiak dituzten ikasleen familien ekarpenak jaso ahal izateko, bai ikastetxean bai familia eta gizarte-ingurunean garatu beharreko hezkuntza-proposamenak aberasteko asmoz	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	09/09/01	09/12/31

6. Helburua: FAMILIAK ETA KOMUNITATEAK HEZKUNTZA INKLUSIBOAN PARTE HAR DEZATEN BEHARTU ETA ERRAZTU.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
6.5.-Plan hau indarrean dagoen bitartean, erakundeekin batera, familiei beren haurren heziketa-prozesuetan duten garrantziaren inguruko prestakuntza-sistemak garatzea.	Topaguneak, jardunaldiak, ikastaroak eta irakasleak prestatzeko hitzaldiak egin dira	Irakasle-taldeei bazterketa-arriskua duten kolektibo sozialetako familiekin esku-hartzeko ezaugarri, egoera, kultura eta gakoaren inguruan prestakuntza eskaini.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	09/09/01	-----
	Familien interesak ordezkatzeko dituzten erakundeekin lankidetzak hitzarmenak egin dira	Bazterketa-arriskuan dauden familien interesak ordezkatzeko dituzten erakundeekin lankidetzak hitzarmenak egin, beren haurren heziketa-prozesuan familiek duten garrantziaren inguruko prestakuntza-prozesuak garatzeko helburuarekin.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB eta Osabidezko Hezkuntza eta Hezkuntza Berriztapena)	09/09/01	-----

7

BERARIAZKO LAGUNTZA PREMIEI ERANTZUTEKO ESPARRUAN, KALITATEZKO HEZKUNTZAREN ZATI GISA, EZAGUTZA, IKERKETA ETA EBALUAZIO PEDAGOGIKOA ESKURA DEZATEN SUSTATZEA.

Hezkuntzaren inguruko erabakiak hartzea eta esku-hartzea azken ikerketen ezagutza eta zientzia-komunitatearen ekarpenetan oinarritzea funtsezkoa da erabaki politikoak, kudeaketa eta hezkuntzaren esku-hartzeak eraginkorrak, berritzaileak eta hezkuntza-markoan artatzen diren kolektibo eta pertsonen premiei entzungo dietenak izan daitezen. Horretarako, euskal hezkuntza-sistemako langile espezializatuak aipatutako ezagutza-iturri fidagarri horiekin lotura etengabea egon behar dira.

Euskal hezkuntza-sistemaren ezaugarriak kontutan hartuz, garrantzitsua da bereak diren ezagutza-iturriak izatea. Garrantzitsua da Euskadiko unibertsitate desberdinetako talde ikertzaileekin, hezkuntza berariazko laguntza-premien alor berdinean lan egiten duten erakunde desberdinetako aditu-taldeekin, harremanak izatea, hori guztia sistemaren beraren baliabideekin koordinatuz; batez ere *Unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea* (ISEI-IVEI), laguntza-zerbitzuen sarea, prestakuntza eta berrikuntza hezigarriak, Berritzeguneak eta Hezkuntzako Ikuskatzailetzarekin.

Halaber, Ebaluazio pedagogikoaren prozesu desberdinen eta hezkuntza-sistema beraren planteamendu inklusiboa ezinbestekoa da. Ebaluazioaren helburua, irakasle eta ikastetxeek eskolatutako ikasleen aniztasun zabalari kalitatezko erantzuna eman ahal izatea da. Ebaluazioak, hezkuntza-sistemako maila desberdinetako irakasleei beren ikasgeletako aniztasunari erantzuteko eta praktika inklusiboak garatzeko planifikazioa egiten lagundu behar die.

HELMUGAK

7.1. Laugarren ikasturtea amaitzean, unibertsitate-esparruko, erakunde sozialetako eta sistemako adituak bilduko dituen batzordea eratuko da. Batzorde horrek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradun desberdinei zientzia-ezagutzaren eta gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen ikuspuntuaren ekarpena eginez beren erabakitze-prozesuetan.

7.2 Plana indarrean dagoen urteetan, hezkuntza premia berezi eta berariazkoen alde desberdinen inguruko ikerketa-taldeak dinamizatzeko deialdiak jarriko dira martxan. Horrela, eskola-testuinguruan heziketaren esku-hartzerako jarraibideetan sakonduko da, prozesu horietan irakasleak orokorrean eta laguntza-zerbitzuak inplikatur.

7.3. Laugarren ikasturtea amaitzen denean, ISEI-IVEIk, unibertsitate-adituen edota erakunde espezializatuen elkarlanarekin, eskolan ikaskuntza eta partaidetza oztupoak goiz identifikatzeko, aurretik baliozkotzat hartu diren tresna diagnostikoak itzuli, moldatu eta euskarari baliozkotuko ditu.

7.4. Prozesuan zehar, ikuspuntu inklusiboa duten tresna ebaluatzaileak emango dira irakasleek ikasgeletan aplikatu ditzaten, aholkularitza, erabiltze-laguntza eta ikuskaritzaren bidez horien erabilpena erraztuz.

7. Helburua: BERARIAZKO LAGUNTZA PREMIEI ERANTZUTEKO ESPARRUAN, KALITATEZKO HEZKUNTZAREN ZATI GISA, EZAGUTZA, IKERKETA ETA EBALUAZIO PEDAGOGIKOA ESKURA DEZATEN SUSTATZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
7.1. Laugarren ikasturtea amaitzean, unibertsitate-esparruko, erakunde sozialetako eta sistemako adituak bilduko dituen batzordea eratuko da. Batzorde horrek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradun desberdinei zientzia-ezagutzaren eta gizarte eta hezkuntzan esku-hartzearen ikuspuntuaren ekarpena eginez beren erabakitze-prozesuetan.	Sektore desberdinekin harremanetan jarriak: Unibertsitatea, erakunde sozialak, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza, lan-batzorde bat osatzearen proposamena jakinarazteko asmoz.	Unibertsitate-esparruko, erakunde sozialetako eta hezkuntza-sistemako adituen batzordeak egin, planteamendu inklusiboetatik ezagutza zientifikoan sakondu dezaten	Hezkuntza Sailburuordetza (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza) ISEI-IVEI Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza	09/09/01	09/12/31
	Sortutako batzordeak ekintza-plan bat du		Hezkuntza Sailburuordetza (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza) ISEI-IVEI Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza	10/01/01	12/03/30
	Batzordea ezarritako plan baten arabera bildu da eta hirugarren ikasturtea amaitzen denean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren erabakiak bideratzeari begirako orientabideak eskainiko ditu, 1. helburuan aipatzen genuen Kode etikoa kontutan hartuko dituztenak	Erabakiak hartzeko prozesuan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradun desberdinei aholkularitza eskaini.	Hezkuntza Sailburuordetza (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza) ISEI-IVEI Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza	10/09/01	13/07/15

7. Helburua: BERARIAZKO LAGUNTZA PREMIEI ERANTZUTEKO ESPARRUAN, KALITATEZKO HEZKUNTZAREN ZATI GISA, EZAGUTZA, IKERKETA ETA EBALUAZIO PEDAGOGIKOA ESKURA DEZATEN SUSTATZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
7.2 Plana indarrean dagoen urteetan, hezkuntza premia berezi eta berariazkoen alde desberdinen inguruko ikerketa-taldeak dinamizatzeko deialdiak jarriko dira martxan. Horrela, eskola-testuinguruan heziketaren esku-hartzerako jarraibideetan sakonduko da, prozesu horietan irakasleak orokorrean eta laguntza-zerbitzuak inplikatur.	2011-12 ikasturtean eta hurrengoan, ikuspuntu inklusibotik eskola-testuinguruan hezkuntza premia berezi erantzungo dieten hezkuntzako esku-hartze jarraibideetan sakonduko duten talde ikertzaileei deialdia.	Hezkuntza premia berezi eta berariazkoen alde desberdinen inguruko ikerketa-taldee deialdia eta dinamizazioa. Taldeek eskola-testuinguruan hezkuntzaren esku-hartze jarraibideetan sakontzea izan behar dute helburu.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza ISEI-IVEI	10/09/01	13/06/30
	2011-12 ikasturtean eta ondorengoetan zehar, ikuspuntu inklusibo batetik eskola-praktikak berriztatzeari begirako deialdietatik eratorritako ikerketa-proiektuen hedapenguneak zabaldu dira.		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	12/03/01	15/06/30
7.3. Laugarren ikasturtea amaitzen denean, ISEI-IVEIk, unibertsitate-adituen edota erakunde espezializatuen elkarlanarekin, eskolan ikaskuntza eta partaidetzan oztopoak goiz identifikatzeko, aurretik baliozkotzat hartu diren tresna diagnostikoak itzuli, moldatu eta euskaran baliozkotuko ditu.	Lehen ikasturtea amaitzean, eskola-testuinguruan ikasleek ikasteko eta parte-hartzeko dituzten oztopoak identifikatzeko Berritzegune eta Ikuskatzailtzako aholkulariek erabilitako tresna diagnostikoen zerrenda dago.	Eskola-testuinguruan ikasleek ikasteko eta parte-hartzeko dituzten oztopoak goiz identifikatzeari begirako tresna diagnostikoen identifikazio, hautaketa, itzulpen, moldaketa eta baliozkotzea.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	09/09/01	12/07/15
	2011-12 ikasturtea amaitzean, ISEI-IVEIk Berritzegune eta Hezkuntzako Ikuskatzailtzako aholkularien esku utzi ditu landutako tresnak.		ISEI-IVEI	10/09/01	13/07/15

7. Helburua: BERARIAZKO LAGUNTZA PREMIEI ERANTZUTEKO ESPARRUAN, KALITATEZKO HEZKUNTZAREN ZATI GISA, EZAGUTZA, IKERKETA ETA EBALUAZIO PEDAGOGIKOA ESKURA DEZATEN SUSTATZEA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
7.4. Prozesuan zehar, ikuspuntu inklusiboa duten tresna ebaluatzaileak emango dira irakasleek ikasgeletan aplika ditzaten, aholkularitza, erabiltze-laguntza eta ikuskaritzaren bidez horien erabilpena erraztuz.	Lan-taldea eratu da eta datorren ikasturterako lan-plana diseinatu da.	Sistemako espezialista-taldea sortu, adituen laguntzarekin, gaitasunen ebaluaziorako tresnak lantzeko, irakasleek ikasgelan aplikatzeko beharrezko duten berariazko laguntza desberdinen arabera.	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (HB, Osabidezko Hezkuntza eta Berritzegune Nagusia) ISEI-IVEI	10-09-01	11-07-15
	Tresnen hedapen-saio bat egin da Berritzeguneetako aholkularientzat.	Gaitasunen ebaluaziorako tresnak landu eta hedatu, erabiltzeko orientabideak eskainiz.	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	11-09-01	12-07-15
	Tokiko Berritzeguneek ikastetxeei aurkeztu dizkiete, beren mintegien edo berariazko saioren batean, diseinatutako tresnak.	Materialen hedapena, ikastetxeetan erabiltzeko orientabideak eskainiz.	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	12-09-01	13-12-20
	Tokiko Berritzeguneen inguruko gutxienez bi ikastetxek beren ikasgeletan, proba modura, diseinatutako tresnak erabili dituzte.	Irakasleek ikasgeletan tresnak ezartzea, Berritzeguneetako aholkulariek horien erabileraren inguruko aholkularitza eta laguntza eskainiz.	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	13-01-07	15-06-24

8

IRAKASLEEN GAITASUN PROFESIONALAK, PRESTAKUNTZA ETA GARAPEN PROFESIONALAK AKTIBATZEA, GUZTIEN ARRAKASTARA ZUZENDURIKO ESKOLA INKLUSIBOAREN LEHENTASUNEN ZERBITZURA.

Garapen profesionalak, bai hasierako prestakuntza bai irakaslearen karreran zehar ematen diren gaitasun profesionalen etengabeko garapena ditu oinarri. Garapen horrek, hezkuntza-praktika hausnartuaren bidez, prestakuntza-modalitate formalak eta hain formalak ez diren eta noizean behin egiten diren beste jarduerak batzuk garatzeko aukera eskaintzen du.

Azken urteetan hainbat instituziok egindako ikerketa eta azterketetan, irakasleen garapen profesionala lagun dezaketen mekanismo ugari aurki ditzakegu ondorio garrantzitsu gisa. Hainbat ekarpenen artean, honakoak azpimarra daitezke:

- Tutoreei ikasgeletan, taldearen barruan norbanakoaren premien tratamendua erraztuko duten praktika inklusiboak garatzen lagundu.
- Ikastetxeen barruan ekintzan oinarritutako prestakuntza-mota antolatu, lanari testuinguru heterogeneoetan ekiteko, baita HPBei lotuta daudenean ere, profesionalen arteko lankidetzan oinarrituz.
- Ikastetxeko ekintzan prestakuntzari begirako aholkularitza bultzatu.
- Ikastetxeetan prestakuntza-egitura iraunkorrak sortu, lan-mintegi edo batzorde misto moduan. Lan hori, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak buru dituela, prozesuaren fase bakoitzean behar izango dituzten aholkularitza eta kanpo-laguntza izan behar dute.

Profesional (Irakasle tutoreak, arlo espezialistak, etab.) eta beste figura heldu desberdinen arteko lan bateratua/lankidetzakoa ekarriko duten proiektuak garatu. Lanerako ohitura partekatuak sortu behar dira, profil bakoitzaren ardurak errespetatuko dituztenak baina aipatutako praktika inklusiboak ezartzeko eta ikasle guztiek izan ditzaketen ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzeko aukera eskainiko dutenak.

Helmugak

- 8.1. Plana indarrean dagoen urteetan zehar, beren erreferentzia-zentroen errealitatearekin lotutako irakasleen prestakuntza-eredua ezarri da.
- 8.2. Bigarren ikasturtean zehar, on-line prestakuntza-zerbitzuak ezarriko dira, irakasle arrunt eta espezializatuen pentsatuak, beren ezagutzak etengabe eguneratzeko eta hezkuntza inklusiboaren ikuspuntutik beren hezkuntza-praktikak berrikusteko aukera eskainiz.
- 8.3. Lehen ikasturtean zehar, irakasleen prestakuntza-planak berrikusiko dira (Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak) beren curriculumean ikuspuntu inklusiboa txertatuz.
- 8.4. Lehen ikasturtean zehar, prestakuntza eta aholkularitzarako beren esku-hartzeak era inklusiboan ikusiko dituzten arlo eta esparru guztietako prestatzaile eta aholkularien prestakuntza-sistema ezarriko da.

8. Helburua: IRAKASLEEN GAITASUN PROFESIONALAK, PRESTAKUNTZA ETA GARAPEN PROFESIONALAK AKTIBATZEA, GUZTIEN ARRAKASTARA ZUZENDURIKO ESKOLA INKLUSIBOAREN LEHENTASUNEN ZERBITZURA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
8.1. Plana indarrean dagoen urteetan zehar, beren erreferentzia-zentroen errealitatearekin lotutako irakasleen prestakuntza-eredua ezarri da.	Aditu-talde batek ikastetxeei eskainiko zaien prestakuntza-marko inklusiboa diseinatu du	Ikastetxeetan prestakuntza-proiektuen deialdiak egin, dimentsio inklusiboak aztertuz, horien artean, ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak identifikatzea eta horiek gainditzeko estrategiak aktibatuz.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia, HB, Osabidezko Hezkuntza eta Berrikuntza Pedagogikoa)	09/09/01	10/07/31
	Ikastetxean prestakuntzako berariazko deialdia idatzi eta hedatu da, ikasleen ikaskuntza eta partaidetza oztopatzen duten oztopoei buruzko analisi eta gogoeta jasoz		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Irakasleen Hobekuntza)	10/09/01	11/07/31
	Berritzeguneetatik ikastetxeen artean eredu zabaltzeko da.		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	10/09/01	11/07/31
	Ikastetxe-prestakuntza inklusiboko ereduak dituzten ikastetxeen esperientziak trukatzeko jardunaldi batzuk		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	12/09/01	13/07/31

8. Helburua: IRAKASLEEN GAITASUN PROFESIONALAK, PRESTAKUNTZA ETA GARAPEN PROFESIONALAK AKTIBATZEA, GUZTIEN ARRAKASTARA ZUZENDURIKO ESKOLA INKLUSIBOAREN LEHENTASUNEN ZERBITZURA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
	antolatu dira.				
	Aholkulari-aditu talde batek ICPak eta sekuentzia didaktikoak ikuspuntu inklusibotik berrikusteko orientabideak landu dituzte.	ICP eta sekuentzia didaktikoetan dimentsio inklusiboa txertatu, diseinu arruntan ikasle guztiei zuzenduriko proposamenak, batez ere, bazterketa-arriskua edota HPBak dituzten ikasleei, kontuan hartuz.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza Ikuskaritza Nagusia	09/09/01	11/06/30
	Prestakuntza-jarduerak antolatu dira laguntza-zerbitzuen aholkulariekin, ikuspuntu inklusibotik ICP eta sekuentzia didaktikoak berrikusteko asmoz.		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	11/09/01	12/07/01
	Ikastetxeek, Berritzeguneen aholkularitzarekin, ikuspuntu inklusibotik ICP eta sekuentzia didaktikoak berriz lantzeari begirako lan-taldeak antolatu dituzte.		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	12/09/01	
8.2. Bigarren ikasturtean zehar, on-line prestakuntza-zerbitzuak ezarriko dira, irakasle arrunt eta espezializatuen pentsatuak, beren ezagutzak etengabe eguneratzeko eta hezkuntza inklusiboaren ikuspuntutik beren	Ikuspuntu inklusiboaren inguruko on-line ikastaroak landu dira.	Aholkulari-talde batek landutako on-line berariazko prestakuntza-ikastaroak sortu, bazterketa-arriskuan dauden ikasleen hezkuntza-inklusiari erantzun-estrategiei lotutako gaiei ekingo	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Irakasleen Hobekuntza eta Berritzegune Nagusia)	09/09/01	10/07/01

8. Helburua: IRAKASLEEN GAITASUN PROFESIONALAK, PRESTAKUNTZA ETA GARAPEN PROFESIONALAK AKTIBATZEA, GUZTIEN ARRAKASTARA ZUZENDURIKO ESKOLA INKLUSIBOAREN LEHENTASUNEN ZERBITZURA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
hezkuntza-praktikak berrikusteko aukera eskainiz.	Berritzeguneetako aholkulariak on-line diseinatutako ikastaroetako tutore izateko prestatu dira.	dietenak.	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Irakasleen Hobekuntza eta Berritzegune Nagusia)	10/09/01	11/07/01
8.3. Lehen ikasturtean zehar, irakasleen prestakuntza-planak berrikusiko dira (Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak) beren curriculumean ikuspuntu inklusiboa txertatuz.	Hezkuntza eta unibertsitateen arteko batzorde mistoa eratu da ikuspuntu inklusibo batetik hasierako irakasle-prestakuntza berrikusteko lankidetzak-markoa sortzeko.	Irakaskuntzarako gaitzen duten titulazioetan eskolak ematen dituzten Euskal Herriko Unibertsitateko arduradunekin lan-saioak egin, beren prestakuntza-prozesuetan eskola inklusiboaren markoan irakaslearen funtzioa jaso dadin	Hezkuntza Sailburuordetza Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Irakasleen Hobekuntza eta Berritzegune Nagusia) Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza	09/09/01	10/07/31
	Euskal unibertsitateko irakaskuntzarako gaitzen duten titulazioetako irakasleei zuzenduriko prestakuntza-saioak diseinatu dira, inklusioari eta eskola inklusiboaren markoan irakasleen paper berrien inguruan.		Hezkuntza Sailburuordetza Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Irakasleen Hobekuntza eta Berritzegune Nagusia) Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza	09/09/01	10/07/31
	Euskal unibertsitateko irakaskuntzarako gaitzen duten titulazioetako irakasleei zuzenduriko urteko ikastaroen egutegia osatu da, inklusioari		Hezkuntza Sailburuordetza Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (Irakasleen Hobekuntza eta Berritzegune	09/09/01	10/07/31

8. Helburua: IRAKASLEEN GAITASUN PROFESIONALAK, PRESTAKUNTZA ETA GARAPEN PROFESIONALAK AKTIBATZEA, GUZTIEN ARRAKASTARA ZUZENDURIKO ESKOLA INKLUSIBOAREN LEHENTASUNEN ZERBITZURA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
	eta eskola inklusiboaren markoan irakasleen paper berrien inguruan.		Nagusia) Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza		
8.4. Lehen ikasturtean zehar, prestakuntza eta aholkularitzarako beren esku-hartzeak era inklusiboan ikusiko dituzten arlo eta esparru guztietako prestatzaile eta aholkularien prestakuntza-sistema ezarriko da.	Aditu-talde batek berritzeguneei eskainiko zaien prestakuntza-marko inklusiboa diseinatu du	Berritzeguneetako aholkulari-talde guztien gogoeta- eta prestakuntza-saioak sustatu, dagozkien jardueretan (ikastaroak, mintegiak, prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak) ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzeko estrategiak jaso ditzaten.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Nagusia)	09/09/01	10/07/31
	Gogoeta- eta prestakuntza-saioak egin dira aurreikusitako egutegiaren arabera		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Nagusia)	10/09/01	11/07/31
	Talde tekniko batek irakasleen arteko lankidetzaren eta laguntzarako eskuliburua diseinatu du.	Elkarri laguntzeko eta ikasgeletako irakasle/tutoreen eta laguntzarako berariazko irakasleen arteko laguntza sustatu, ikasle guztientzat hezkuntza-proposamen inklusiboen diseinuan	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Nagusia eta Berrikuntza Pedagogikoa)	09/09/01	10/07/31
	Aipatu eskuliburua hedatu eta ezarri da, prestakuntza-jardueren bidez (GARATU) edo prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuen bidez.		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Nagusia, Hobekuntza)	10/09/01	15/07/31

8. Helburua: IRAKASLEEN GAITASUN PROFESIONALAK, PRESTAKUNTZA ETA GARAPEN PROFESIONALA AKTIBATZEA, GUZTIEN ARRAKASTARA ZUZENDURIKO ESKOLA INKLUSIBOAREN LEHENTASUNEN ZERBITZURA.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
	Programa desberdinen arduradunen arteko lankidetzametodologia ezarri da gai komunak eta esku-hartze koordinatuak ezartzeko.	Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren ildo nagusiak garatzen dituzten programa desberdinen arteko lankidetzeta eta koordinazio-esparrua ezarri, printzipio inklusiboekin koherenteak diren jarduerak lortze aldera.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza	09/09/01	10/07/31
	Berritzegune eta ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzeko prozesuak laguntzen dituzten zentroei zuzenduriko argibideak eta orientabideak landu dira.		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza	10/09/01	15/07/31

9

POLITIKA ETA PRAKTIKA INKLUSIBOEN GARAPENA KUDEATZEA.

Hezkuntza inklusiboago bateranzko aurrera pausoez argi artikulatutako printzipio-multzo baten gainean oinarritutako etengabeko aldaketa-prozesu bat behar dute eta hezkuntza-sistema osoaren berrikuntza, hobekuntza eta garapenerako behar diren ikuspuntutik ikusi behar dira.

Aldaketak bultzatzeak iritzi publikoa mobilizatzea esan nahi du, adostasunak eraikitzea, egoera-analisia egitea, arautegia aldatzea eta beren tokiko errealitatean eskola inklusiboa eraiki nahi duten ikastetxeen proiektu zehatzak laguntzea.

Askotan, Administrazioako eragile desberdinen praktika batzuk aldatu behar dira, bai eta ekonomia-, intelektual eta giza baliabideen eskaera berraztertzea ere.

Hezkuntza Administrazio guztia, ardura-maila guztietan, bai zentraletan bai lurraldekoetan, bai eta Hezkuntzako Ikusatzailatzak eta Irakaskuntza Laguntzeko Zerbitzuek ere eskola inklusiboaren printzipioak partekatu behar dituzte. Gure hezkuntza-sistema informatzen duten printzipio eta lerroen eta langileen, baliabideen eta ekonomiaren kudeaketarekin, bai eta hezkuntza-ikuskaritza eta -aholkularitzarako irizpideekin lotutako ekintzen arteko koherentzia osoa egon behar du.

HELMUGAK

9.1. Ekintza Plana indarrean dagoen lehen bi ikasturteetan, sistemako eragile guztiekin, goi-karguetatik irakasleetaraino, euskal hezkuntza-sistema inklusiboaren garapenaren inguruko prestakuntza-prozesua egingo da.

9.2. Planaren bigarren ikasturte amaieran, hezkuntza-sistemaren egoera-analisia eginga egongo da bere maila eta etapa guztietan, berariazko laguntza-premia berriak identifikatzen saiatuz, ikaskuntza eta partaidetzari oztipoak gaitzitzeko estrategiak landu ahal izateko.

9.3. Ekintza Planaren lehen ikasturtea amaitzean, indarrean dagoen arautegiaren inguruko txostena eginga egongo da, pertsona guztiek ikasi eta parte hartzeko lege-oztupoak identifikatuz.

9.4. Planaren bigarren ikasturtea amaitzean, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeek euskal hezkuntza-sisteman duten funtzioari eta ikasleen hezkuntza- eta gizarte-inklusioren prozesuan eginiko ekarpenari buruzko gogoeta eginga egongo da.

9. Helburua: POLITIKA ETA PRAKTIKA INKLUSIBOEN GARAPENA KUDEATZEA					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
9.1. Ekintza Plana indarrean dagoen lehen bi ikasturteetan, sistemako eragile guztiekin, goi-karguetatik irakasleetaraino, euskal hezkuntza-sistema inklusiboaren garapenaren inguruko prestakuntza-prozesua egingo da.	Hezkuntza politikako Arduradunekin (Sailburua, Sailburuordeak eta Zuzendariak) bi saio egin dira.	Euskal hezkuntza-sistemaren dimentsio inklusiboari buruzko gogoeta-saioak egin, aditu entzutetsuek zuzenduak Hezkuntza Saileko talde desberdinei.	Hezkuntza Sailburuordetza	09/09/01	09/12/31
	Lurralde Ordezkaritzako eta Hezkuntzako Ikuskatzailatzako arduradun Taldeekin bi lan-saio egin dira		Hezkuntza Sailburuordetza	10/01/01	10/03/30
	Informazio-prestakuntzako hiru saio egin dira irakaskuntza laguntzeko Zerbitzuekin: Berritzeguneak, Itsuentzako baliabide-zentroak (CRI), IIHIIak, ISEI-IVEI eta Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretarako Zentroak.		Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza	10/04/01	10/07/15
	Ikastetxe guztietan hedapena egin da gutxienez bi lan-saiorekin.		Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	10/09/01	11/06/30
	Eskola inklusiboaren inguruko Kode etikoari buruzko dokumentu bat egongo da.		Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	09/09/01	11/06/30
		Euskal eskola inklusiboan erabakiak hartzeko Kode Etikoa egin, arautegi-markoa, deialdiak (hitzarmenak, kontzertuak, diru-laguntzak, laguntzak...) berrikusteko, laguntzen inguruko erabakiak hartzeko eta hezkuntzan esku-hartzeko erreferentzia gisa erabiltzeko.			

9. Helburua: POLITIKA ETA PRAKTIKA INKLUSIBOEN GARAPENA KUDEATZEA					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
9.2. Planaren bigarren ikasturte amaieran, hezkuntza-sistemaren egoera-analisia egin egongo da bere maila eta etapa guztietan, berariazko laguntza-premia berriak identifikatzen saiatuz, ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzeko estrategiak landu ahal izateko.	Hezkuntza-sisteman sortzen ari diren premia berrien inguruko txostena egin da	ISEI-IVEIri eskatu, Hezkuntzako Ikusatzailletza eta Berritzeguneekin elkarlanean, hezkuntza-sistemaren egoeraren analisia egitea bere maila eta etapa guztietan. Behatoki gisa, berariazko laguntza-premia berriak identifikatu behar dira ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzeko estrategiak ezartzeko helburuarekin	ISEI-IVEI	09/09/01	11/06/30
	Premia berrien inguruko informazioa bizirik mantentzeko aukera eskaintzen duen prozedura sistematizatu da.		ISEI-IVEI		
9.3. Ekintza Planaren lehen ikasturtea amaitzean, indarrean dagoen arautegiaren inguruko txostena egin egongo da, pertsona guztiek ikasi eta parte hartzeko lege-oztopoak identifikatuz.	Indarrean dagoen araudia errepasatu eta euskal hezkuntza-sistema inklusiboaren aukerarekin zerikusia duten puntu gatazkatsuak jasoko dituen txostena	Indarrean dagoen arautegia berrikusi eta eguneratu ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak diren aldeak identifikatuz eta horietan erreforma eta hobekuntzak proposatu ikuspuntu inklusibotik.	Ikuskaritza Nagusia	09/09/01	10/06/30 10/06/30
	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari dagozkion zerbitzuekin alderaketa-prozesuak jarri dira martxan.				
9.4. Planaren bigarren ikasturtea amaitzean, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeek euskal hezkuntza-sisteman duten funtzioari eta ikasleen hezkuntza- eta gizarte-inklusioren prozesuan eginiko ekarpenari buruzko gogoeta	Plana hasi eta lehen hiru hilakoa amaitzen denean, Administrazio eta Erakundeetako eta Erkidegoko EBen ikastetxeetako ordezkari osatutako lan-taldea eratu da.	Administrazioko eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeak kudeatzen dituzten Erakundeetako adituen lan-taldea eratu, egoeraren txostena egiteko.	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza	09/09/01	11/06/30

9. Helburua: POLITIKA ETA PRAKTIKA INKLUSIBOEN GARAPENA KUDEATZEA					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
egina egongo da.	Bigarren urtea amaitzean, Administrazioako hezkuntza bereziko ikastetxeen eta erakunde kontzertatuen elkarlanerako aukerei buruzko lege-administrazio txostena egin da.	Hezkuntza bereziko ikastetxeen beren ezagutzak eta esperientzia euskal hezkuntza-sistemaren garapen inklusiborako prozesuan txerta ditzaten aukera administratiboak aztertu.	Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza	10/09/01	11/06/30

10

**HEZKUNTZA-PREMIA BERRIETARA EGOKITUKO DIREN
BALIABIDE EGOKIAK ETA HORIEK HORNITU, JARRAITU ETA
ARTIKULATZEA EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN IKUSPUNTU
INKLUSIBOTIK.**

Hezkuntza-sistema guztiek, zenbait ikaslek ikasteko eta parte hartzeko dituzten oztopoak gainditzeko baliabideak emateko beharrari egin behar diote aurre. Eskolan sortzen diren egoera berriei hezkuntza-erantzun berriak eman behar zaizkie eta erantzun horiek baliabide-zuzkidura osagarrian soilik ez, eta kasu askotan batez ere, irakasleen eta langile espezializatuen eskuduntza areagotzean oinarritu behar dira. Horretarako, ikuspuntu inklusibotik ikastetxearen antolamendua, baliabideak kudeatzen dituzten instantzia kudeatzaileen ekintza, komunitatearen inplikazioa, familien konpromisoa, etab. arrazionalizatu behar da.

Esan behar da, baliabideak emateko sistemek inklusioaren helburuekin bat egiten duten jarrera estrategikoak piztu behar dituztela eta albo batera utzi ahuldu eta beti ikasle ahulenen interesen alde jokatzeko ez dutenen jokabideak.

Bestalde, kontuan izan behar da gure hezkuntza-sistemaren eboluzioan azken hamarkadetan gehien antzeman den ezaugarrietako bat figura profesional berrien sorrera eta sendotzea izan dela: aholkulariak, orientatzaileak, Entzumena eta Hizkuntza Espezialistak, fisioterapeutak, okupazio-terapeutak, zereginen ikaskuntzarako irakasleak, ikasle gorrentzako irakasle elebidunak, hezkuntza-laguntzarako espezialistak... Premia desberdinen arabera eboluzio bati begira, beste mota bateko laguntza pertsonalak txertatzearen beharra sor daitekeela aurreikus daiteke, bai Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beraren kudeaketan edo Eusko Jaurlaritzako beste Sail batzuekin, Udalekin edo inklusio-eragile gisa komunitatean esku-hartzen duten erakundeekin elkarlan-hitzarmenean.

Ezin ahantz dezakegu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan berariazko laguntza-premiak dituzten zenbait ikasle dauden egoera; geroz eta premiazkoagoa da ez soilik etapa horretan antolamendu-egitura eta esku-hartzeko ereduaz aztertzea, dauden baliabideak era inklusiboan ekiten duten ere aztertu beharrekoa baita. Azken ikasturteetan ikasle horien arretarako profil profesional berriak diseinatzeko aukera mahai gainean jarri behar da, ikasleek beren hezkuntza-prozesua ahalik eta era inklusiboenean gara dezaten eta ikasteko eta parte hartzeko dituzten oztopoak ahalik eta gehien gaindi ditzaten.

Baliabide materialen artean, oso garrantzitsua da ikastetxeetako eraikinetara irisgarritasun osoa lortzea; ezinbesteko baldintza da zenbait minusbaliotasun dituzten ikasleen eskolatzerako.

Azken urteotan, informazio eta ezagutzaren gizartea estamentu guztietan ezarri dela esatea ezin da zalantzan jarri. Bizitza osoan zehar ikastea XXI. mendeko herritarren hezkuntzaren gakoetako bat da. Ezagutzaren gizartean arrakasta izateak gure bizitzan zehar hainbat izaeratako ikasketak egiteko guztion gaitasuna eskatzen du alde batetik, eta, bestetik, etengabeko aldaketan dauden gizarte-, lan- eta ekonomia-egoeretara azkar eta eraginkorki moldatzeko gaitasuna.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ikasketa, ezagutzaren gizarte-eraikitzea eta autonomoki ikasteko trebetasun eta gaitasunen garapena laguntzeko gaitasun jakina dute.

Testuinguru horretan kokatu behar da birgaitzea, informazio, komunikazio eta ikaskuntza eskuratzeko aukerak izateko teknologia egokiak ematea, kontuan hartuz ikasle horien zati handi batentzat ezagutzaren gizartera iristeko tresna lehenetsia direla, eskola-arrakastarako bidea, ikasteko eta zenbait hezkuntza-premiak birgaitzeko bitarteko teknikoak.

IKTek, Haur Etapatik jada hezkuntza-esparruan protagonismo gehiago izan behar dute, minusbalotasuna duten pertsona asko curriculumera iristeko teknologia altuaren laguntza-tekniken menpe baitaude.

HELMUGAK

- 10.1.-Plana indarrean dagoen lehen ikasturtean zehar, dauden giza baliabideak eta ikasleen ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzeko tresna gisa hezkuntza-inklusioren garapenerako egoki erabiltzen diren ebaluatuko dira.
- 10.2.-2. eta 3. ikasturtean zehar, ikastetxeen antolamendu-egiturak eta gaur egun dauden laguntza-baliabideen jardun inklusiboak aztertuko dira eta ikastetxeetako heziketa-praktikan jasotako esku-hartze ez inklusiboak berriz bideratuko dira.
- 10.3. Aldi berean, baliabide didaktikoen zuzkiduraren azterketa egingo da, ekipamendu informatikoa, altzariak eta material bereziak barne, prozesu osoan zehar, euskarri digital edo konbentzionalen dauden ekipamendu eta material didaktikoen diseinu guztia, diseinuagatik integrazio-printzipioan eta guztientzako diseinuan oinarritzea sustatuz.
- 10.4.-Plana indarrean dagoen bitartean, eskolaren testuinguruan laguntza espezializatuaren beharra izan dezaketen egoera berrietan ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzeko aukera eskain dezaketen beharrezko baliabide-mota berriak identifikatzea.
- 10.5.-Baliabide desberdinak aztertu eta ebaluatu ondoren, erreferentzia-parametro berrietatik, hezkuntza-inklusioko baliabideak bideratzeko irizpideak ezarriko dira.
- 10.6.-Planaren indarraldia amaitzean, Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztien irisgarritasun osora iritsiak izango gara.

10. Helburua: hezkuntza-premia berrietara egokituko diren baliabide egokiak eta horiek hornitu, jarraitu eta artikulatzea euskal hezkuntza-sistemaren ikuspuntu inklusibotik.					
Helmugak	Egikaritze-adierazleak	Jarduerak	Arduraduna	Epea	
				Hasiera	Amaiera
10.1.-Plana indarrean dagoen lehen ikasturtean zehar, dauden giza baliabideak eta ikasleen ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzeko tresna gisa hezkuntza-inklusioaren garapenerako egoki erabiltzen diren ebaluatuko dira.	Giza baliabideen zuzkiduraren errealitateari buruzko txostena egin da	Ikastetxeetan hezkuntzan berariazko laguntza-premiak artatzeko dauden giza baliabideen zuzkiduraren analisia egin	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza Ikuskaritza Nagusia	09/09/0q	10/06/30
	Giza baliabideen katalogoa egin da	Hezkuntzan berariazko laguntza-premiak dituzten ikasleei laguntza errazteko dauden giza baliabideen katalogo osatua egin	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	09/09/01	10/06/30
10.2.-2. eta 3. ikasturtean zehar, ikastetxeen antolamendu-egiturak eta gaur egun dauden laguntza-baliabideen jardun inklusiboak aztertuko dira eta ikastetxeetako heziketa-praktikan jasotako esku-hartze ez inklusiboak berriz bideratuko dira	Hezkuntzan berariazko laguntza-premiak dituzten ikasleen erantzunean ikastetxeen errealitateari buruzko txostena egin da.	Hezkuntzako Ikuskatzailtzari, ikastetxeen antolamendu- eta lankidetz-egituren eta ikuspuntu inklusibotik hezkuntzan berariazko laguntza-premiak dituzten ikasleen eskolatze egokirako giza baliabide osagarrien erabileraren inguruko analisia eskatu.	Ikuskaritza Nagusia ISEI-IVEI	10/09/01	11/06/30
	Jardunbide egokien esperientziak bildu dira	Ikuspuntu inklusibotik jardunbide egokien eskuliburua egin	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	10/09/01	11/06/30
	Jardunbide egokien eskuliburua egin da		Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	11/09/01	12/06/30

10.3. Aldi berean, baliabide didaktikoen zuzkiduraren azterketa egingo da, ekipamendu informatikoa, altzariak eta material bereziak barne, prozesu osoan zehar, euskarri digital edo konbentzionalen dauden ekipamendu eta material didaktikoen diseinu guztia, diseinuagatik integrazio-printzipioan eta guztientzako diseinuan oinarritzea sustatuz.	Materialen zuzkidura eta berritzearen estandarrak diseinatu eta ezarri dira	Batez ere, gela egonkorretan, zereginen ikaskuntzan, ospitaleko eta etxeko hezkuntza arretan eta arreta terapeutiko-hezigarrietan, itsuen baliabide-zentroetan, ikasle gorren hezkuntza-inklusioko zentroetan, materialen zuzkidura eta berritzearen estandarrak ezarri	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	09/09/01	10/06/30
	Ikastetxeetako baliabideen inguruko datu-basea egin da	Ikastetxeek ikasleei erantzuteko berariaz duten zuzkidura berrikusi	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (HB, Osabidezko Hezkuntza eta Berritzegune Nagusia)	09/09/01	10/06/30
	IKTen esparruan une honetan dauden materialak identifikatzen dituen inbentarioa egin da.	IKTen esparruan une honetan dauden materialak identifikatu	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	10/09/01	11/06/30
	IKT baliabideen kudeaketa protokolizatu da eskola inklusiboaren planaren barruan	Ikasleen eta bereziki hezkuntzan berariazko laguntza-premiak dituztenen informazio eta komunikaziorako biderako behar diren material espezializatuak ahalik eta epe motzengatik emateko Baliabide Zuzendaritzarekin adostutako protokoloa ezarri	Hezkuntza Sailburuordetza (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza) Hezkuntza Administrazio Sailburuordetza (Baliabide Zuzendaritza)	10/09/01	-----
	Baliabide-zuzkidura, laguntza ekonomiko, ikerketa-beka eta abarren deialdiak protokolizatu dira.	Diseinuagatik integrazioa kontuan hartuko duten baliabide zuzkidura, laguntza ekonomiko, ikerketa-beka eta abarren deialdi guztiek jarraitu beharreko protokoloak ezarri.	Hezkuntza Administrazio Sailburuordetza (Baliabide Zuzendaritza)	10/09/01	11/06/30

	Informatika-arloan lan egiten duten instituzioekin lankidetzahitzarmena ezarri da programa informatikoen irisgarritasuna eta bateragarritasuna homologatzeko	Berariazko laguntza-premiak dituzten talde desberdinentzat Interneten garatzen diren programa informatikoen eta edukien irisgarritasuna eta bateragarritasuna bermatu	Hezkuntza Administrazioako Sailburuordetza (Baliabide Zuzendaritza)	10/09/01	11/06/30
10.4.-Plana indarrean dagoen bitartean, eskolaren testuinguruan laguntza espezializatuaren beharra izan dezaketen egoera berrietan ikaskuntza eta partaidetzari oztopoak gainditzeko aukera eskain dezaketen beharrezko baliabide-mota berriak identifikatzea.	Sortzen ari diren beharrei, emandako erantzunari eta horien moldaketa-beharrei buruzko txostena egin da	Gizartearen bilakaera dela eta sortu diren behar berriak antzeman eta horiei erantzuteko era egokiena zein izan daitekeen aztertu.	ISEI-IVEI Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	10/09/01	11/06/30
	Honako kasu hauen antzemate eta segimendurako protokoloak egin dira: - Haurren tratu txarrak eta babes eza. - Arazo bereziak dituzten nerabeak - Familia-harreraren, familia funtzionaletan dauden haurrak, bakarrik dauden adin txikiko atzerritar etorri berriak, etab. - Gure hezkuntza-sisteman sartzen diren ikasle iritsi berrien harrera eta eskolatzerako protokoloak	Jarraibideak, protokoloak, gizarte zerbitzuekin lankidetzakintzak eta sare-lana garatu eskola testuinguruan eragin handia duten zenbait arazo psikosozialak kontuan hartuz erantzun koordinatu eta bateratu bat eskaintzeko	Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Berritzegune Nagusia)	10/09/01	
	Gizarte zerbitzuekin lankidetzahitzarmenak egin dira		Hezkuntza Sailburuordetza	10/09/01	

	Osasun Sailarekin lankidetza-hitzarmenak jarri dira martxan	Osasun Sailarekin lankidetza-hitzarmenak ezarri eskola testuinguruan gizarte eta osasun esku-hartzei, eskola testuinguruan gaixo dauden ikasleen arretari eta haur eta gazteen buru-osasunaren arloan arazoak dituzten ikasleen geroz eta problematika handiagoari batera aurre egiteko.	Hezkuntza Sailburuordetza	10/09/01	
10.5.-Baliabide desberdinak aztertu eta ebaluatu ondoren, erreferentzia-parametro berrietatik, hezkuntza-inklusioren baliabideak bideratzeko irizpideak ezarri dira.	Berritzegune guztietan Okupazio Terapeuta jarria	Hala behar duten ikasleen hezkuntza-inklusioko egokirako irisgarritasuna eta material, altzari eta tresnen egokitzea errazteko Okupazio Terapiaren diplomatura duten langileak eremu guztietan daudela bermatu.	Hezkuntza Administrazioako Sailburuordetza (Langilearen kudeaketa Zuzendaritza) Hezkuntza Sailburuordetza (Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza)	10/09/01	2012
	Zerbitzu bateratua sortu	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzan, zerbitzu bakarrean, koordinatzailea eta dagozkion teknikariekin, hezkuntzan berriazko laguntza-premiak dituzten ikasleei erantzutearekin lotutako baliabideen kudeaketa bateratu	Hezkuntza Sailburuordetza	10/09/01	
	Baliabideak esleitzeko eskuliburua diseinatu da	Eskola inklusiborantzko pausoetan eragin positiboa izango duten aldagaien arabera, giza baliabideen esleipenerako eskuliburua egin. Ez daitezela ikasle-kopuruaren arabera soilik esleitu, beste aldagai batzuk ere kontuan har daitezela (Esku-hartze Globalerako Proiektua, gizarte-ingurunea, zailtasun-egoerak, etab.).	Hezkuntza Sailburuordetza (Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza -Berritzegune Nagusia) Hezkuntza Administrazioako Sailburuordetza (Baliabide Zuzendaritza)	11/09/01	13/06/30

	Baliabideak esleitzeko eskuliburua erabiltzen da		Hezkuntza (Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia)	Sailburuordetza Berriztatze -Berritzegune	12/06/30	
10.6.-Planaren indarraldia amaitzean, Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztien irisgarritasun osora iritsiak izango gara.	3. ikasturtea amaitzean, irisgarritasunari dagokionez ikastetxeen egoera jasotzen duen txostena izango da	Gure Erkidegoko ikastetxe guztiek irisgarritasunari dagokionez duten egungo egoerari, lortutako aurrerapenei eta etorkizuneko ekintzetarako abiapuntuari buruzko "mapa" egin.	ISEI-IVEI	Hezkuntza Administrazio Sailburuordetza (Baliabide Zuzendaritza)	11/09/01	12/06/30
	Irisgarritasun osoa lortzeko plana jarri da martxan	Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan irisgarritasun osoa lortzeko egoki kuantifikatutako eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuetan islatutako plana egin.	Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordetza		09/09/01	20/09/01
	Material didaktiko, eskola-altzari eta material berezietarako esleipenak protokolizatu dira	Material didaktiko, eskola-altzari eta material berezietarako esleipen guztietan, diseinuagatik integrazioa eta guztientzako diseinua bermatuko duten klausulak gehitu.	Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordetza			15/06/30

6.-PLANAREN EBALUAZIOA

Ekintza Plana onartzen denean martxan jarriko da aurreikusitako ekintzen exekuzioaren bidez, sei urtetako epean, 2009-2010 ikasturtetik aurrera.

Hezkuntza Sailburuordetzaren esparruan, ZUZENDARITZA BATZORDEA eratuko da. Partaideak Hezkuntza Sailburuordea, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaria, inplikaturako Hezkuntza Berriztatze Koordinatzaileak eta dagokion Ikuskatzaile Nagusia izango dira. Halaber, beharrezko ikusten denean, Planaren garapenean esku hartzen duten beste Zuzendaritza batzuk parte hartu ahal izango dute (Langileak, Ikastetxeak, Baliabideak, Administrazioa eta Ekonomia Kudeaketa...). Gainera, kanpoko adituen aholkularitza ere izango du. Batzordearen funtzioak plana martxan jartzea eta bere garapena bermatzea izango dira, eta ebaluazio eta esku-hartzeko estrategiak ezartzea.

Hezkuntza Berriztatze Zuzendariak BATZORDE TEKNIKOA zuzenduko du. Partaideak, Ekintza Planean inplikaturako Hezkuntza Berriztatze Koordinatzaileak, planarekin zerikusia duten Berritzegune Nagusiko arduradunak (Aniztasuna, Hezkuntza Premia Bereziak, Kultura arteko Hezkuntza, Ikaskuntza Komunitateak, Elkarbizitza, Kalitatea...), eta Hezkuntzako Ikuskatzailetzako ordezkari bat izango dira. Batzorde horrek Langile, Ikastetxe, Baliabide, Administrazio eta Ekonomia Kudeaketako Zuzendaritzetako ordezkariak izan ditzake. Kanpoko zenbait aditu ere sar daitezke (ikertzaile, unibertsitate irakasle,...). Batzordeak, urtero, Planaren exekuzioan azpimarragarrienak diren elementuak bildu eta segimendu eta ebaluazioa egiteko aukera eskainiko duen memoria egingo du. Halaber, Zuzendaritza Batzordeari Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) egin beharreko ebaluazioen norabidea proposatuko dio, Ekintza Plan honek eragiten dituen hezkuntza-sistemaren hainbat alderen inguruan.

Halaber, Planaren SEGIMENDU BATZORDE desberdinak eratuko dira. Partaideak Batzorde Teknikokoak eta jorratutako alorrarekin zerikusia duten eragile sozialak (Gurasoen Elkarteak, Erakundeak) izango dira. Batzorde horien helburua PLANaren garapenean inplikatuak dauden gizarte-sektoreen proposamenak jasotzea da. Urtero bilduko dira sektore-txostenak egiteko, planaren garapenaren balorazioarekin eta BATZORDE TEKNIKOARI zuzenduriko hobekuntza-proposamenekin.

Plana amaitzean, ISEI-IVEIri emango zaio, proposaturako adierazleak kontutan hartuz, planean proposatzen diren helmugen lorpen-maila baloratzeko ebaluazio zehatza egiteko ardura.

7.-ERREFERENTZIAKO BIBLIOGRAFIA

Ainscow eta Booth: *Index for inclusion*. (2002): Centre for Studies on Inclusive Education (CSIE) Bristol, Erresuma Batua.

Ainscow, Mel. (2005): Hezkuntzan guztiontzako sistemak garatzea. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (2005): "Hezkuntza Premia Bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan" Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Booth, T. & Ainscow, M. (2005): Hezkuntza Inklusiboa ebaluatze eta hobetzeko gida. Eskoletako ikaskuntza eta partaidetza garatuz. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz. 2005.

Europako Batzordea. Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusia. 2004 azaroa: Educación y Formación en Europa: sistemas diversos, objetivos compartidos para 2010.

EUROPAKO KONTSEILUA. MINISTRO LANTALDEA. Recomendación Rec(2006)5 del Comité de Ministros a los Estados miembros sobre el Plan de Acción del Consejo de Europa para la promoción de derechos y la plena participación de las personas con discapacidad en la sociedad: mejorar la calidad de vida de las personas con discapacidad en Europa 2006-2015. (2006ko apirilaren 5ean, Ministro Lantaldeak egokitua, Ministro Ordezkarien 961. bileran)

175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarriko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa. EHAA - 2007ko azaroak 13, asteartea

Pedagogia Berriztapeneko Zerbitzua. (1989): Eskola Muinbakar eta Integratzailea. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1989

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza. (2000): Hezkuntza Berriztatze Programak 2000-2003. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Vitoria-Gasteiz. 2000 maiatza.

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (2004): Hezkuntza Berriztatze Programak 2003-2006. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza. (2005): "Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan" Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (2006): "Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan. Hainbat jardunbide egokiren esperientziak eta eztabaidak". Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza (2008): Hezkuntza Berriztatze Programak 2007-20010. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Echeita, G. eta Verdugo, M. A. (Koord.) (2004): La declaración de Salamanca sobre necesidades educativas especiales 10 años después: Valoración y prospectiva.

Salamanca: INICO.

Echeita Sarrionaindia, G. (2005) Zergatik Jorgek ezin du anaiarekin eskolara joan? Guztientzako eskolaren alde egitea zailtzen duten zenbait hesiren azterketa bat. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan. (2005): "Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan" Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Echeita, G. (2006a) Educación para la inclusión. Educación sin exclusiones Madrid: Morata.

Echeita, G., Parrilla, A. eta Carbonell, F. XXV JORNADAS DE UNIVERSIDADES Y EDUCACION ESPECIAL. Universidad de Vic. 2008ko martxoaren 12 eta 13. PONENCIA-MARCO. "Hacia un marco de referencia común para la educación del alumnado en desventaja. La educación especial a debate"

FEAPS (2000): Manual de Buena Práctica de Educación. Madrid: FEAPS.
Giné, C. (2004): La *Declaración de Salamanca* sobre necesidades educativas especiales 10 años después. Valoración y prospectiva desde Catalunya. Echeita, G. eta Verdugo, M. A. (Koord.): **La declaración de Salamanca sobre necesidades educativas especiales 10 años después: Valoración y prospectiva**. Salamanca: INICO.

INCLUD-ED. Strategies for inclusion and social cohesion in Europe from education. VI Programa Marc de la Comissió Europea.

Jaussi Nieva, María Luisa (koord.) (1998): Kulturarteko hezkuntza: Eskolan aniztasun etniko eta kulturalari hezkuntza erantzuna emateko orientabideak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. BOE. 2006ko maiatzak 4, osteguna

Mendia, R. (1996) Educación Compensatoria para adolescentes en dificultad social en el País Vasco. Revista Educación Social. 2. zb. Urtarrila/Apirila 33-46 or.

Mendia, R. (1997) Aniztasunaren trataera derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Mendia, R. (2004): Paso a paso hacia una escuela inclusiva en el País Vasco. Echeita, G. eta Verdugo, M. A. (Koord.): **La declaración de Salamanca sobre necesidades educativas especiales 10 años después: Valoración y prospectiva**.

Mugertza Urkidi, K. (2005) Hezkuntza-integrazioa guztientzako hezkuntza batera. Hezkuntzaberriztatzeko Zuzendaritzaren jardura-ildoak datozen urteetarako. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan. (2005): "Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan" Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Hezkuntza premia bereziari buruzko araudia Euskal Autonomi Erkidegoan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz. 1999.

Orcasitas, J.R. (2005) 20 urte eskolan integratzen euskal autonomia erkidegoan. Historia apur bat... guztientzako kalitatezko hezkuntza sistema eraikiz. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan. (2005): "Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan" Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Parrilla, A. (2005) Gelakideak? Guztientzako heziketaren gakoak ikasgelan. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan. (2005): "Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan" Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamua. Hezkuntza eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz. 1983.

Porter, G. (2005) Hezkuntza barne hartzailea praktikan. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan. (2005): "Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan" Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Schalock, R. L. eta Verdugo, M. A. (2003): **Calidad de vida. Manual para profesionales de la educación, salud y servicios sociales.** Madril: Alianza.

UNESCO (2004) Temario Abierto sobre Educación Inclusiva. *Materiales de Apoyo para Responsables de Políticas Educativas*. Publicado por la Oficina Regional de Educación de la UNESCO para América Latina y el Caribe OREALC / UNESCO Santiago. Santiago de Chile.

UNESCO (2008): **La educación inclusiva: el camino hacia el futuro. Documento de referencia.** Ginebra: UNESCO.

Verdugo Alonso, M.A. (2005) AAMR-en 2002ko adimen atzerapenaren definizioaren ekarpenak pertsonaezinduen barneratze korronteari. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan. (2005): "Hezkuntza-premia bereziei erantzuna guztientzako euskal eskolan" Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

HHA (1995) Irakasle aholkularia. Funtza. Funtzioak. Praktika. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

HHA (2002) Euskadiko Ikaskuntza Komunitateak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.